

# KUDEAKETA TXOSTENA

2015-2016 ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



## AURKIBIDEA

---

1. Programa. Ikasleak, gure izatearen arrazoia.....	5
2. Programa. Administrazio eta zerbitzuetako langileak .....	12
3. Programa. Irakasle eta ikertzaileak .....	15
4. Programa. Gradu eskaintza irekia eta berritzailea.....	17
5. Programa. Nazioartean erakargarria izango den graduondoko eskaintza, gure inguru ekonomiko eta sozialera egokitua.....	22
6. Programa. Unibertsitate ikertzailea.....	28
7. Programa. Jakintza transferitzea gizartearen onurarako.....	36
8. Programa. Euskararen eta euskal kulturaren unibertsitatea .....	41
9. Programa. Mundura irekitako unibertsitatea .....	45
10. Programa. Unibertsitate konprometitia eta arduratsua.....	50
11. Programa. Unibertsitate adeitsua eta hurbila .....	59
12. Programa. Campusetako bizitza .....	62



# 1. PROGRAMA. IKASLEAK, GURE IZATEAREN ARRAZOIA

## 1.1. EKINTZAILETZA ETA LANERATZEA SUSTATZEA

### 1.1.1. Hiru campusetako Enplegu Guneek eskainitako zerbitzuak indartzea eta ikasleengana hurbiltzea.

- 2015-2016 ikasturtean, UPV/EHUko 1.475 ikasle hurbildu dira Enplegu Guneetara, eta banakako 1.065 orientazio saio egin dira.
- Nabarmentzekoa da kudeatu den enplegu eskaintza kopurua (712 eskaintza), eta bete egin dira Lanbide eta UPV/EHUren arteko hitzarmenak ezartzen dituen adierazle guztiak.
- Amaitu egin dugu Enplegu Guneak ezagutarazteko hirur campusetako ikastegi guztietara eginiko bisita erronda, eta informazio hitzaldiak eskaini dira.
- Lehen enplegua lortzeko ikastaroak eta jarduerak antolatu ditugu, eta unibertsitateko tituludunen enplegarritasunarekin zerikusia duten foroetan parte hartu dugu: Espainiako Unibertsitate Tituludunen Enplegarritasun eta Enplegu Barometroaren aurkezpen ekitaldia (Madril); *BIME RECRUITING* (Industria Kreatiboen enplegu foroa, Bilbo); Gasteizko Enplegu Foroa; Laneratze ikastaroak (Arabako Campuseko Unibertsitate Ikastegiak); Lanbide Orientazioko Jardunaldiak; Ekonomistentzako Irteera Profesionalei buruzko Jardunaldiak (Bilbo).
- Tituludunek enpresetan praktikak egiteko *Lehen Aukera* programaren 2016ko deialdia kudeatu da.
- *EPEZ X* programarekin jarraitu dugu, *Erasmus+ Internship Graduates* programaren barnean (apirila 2016): 74 pertsona (% 67 emakumeak eta % 33 gizonak), Alemania, Erresuma Batua, Irlanda, Italia, Portugal, txekiar Errepublika eta Austriako enpresetan.
- *Erasmus+ Ikasle Praktikak 2015-2016* programa kudeatu dugu, *Erasmus+ Internship* programaren barnean: 34 pertsona (% 44 emakumeak eta % 56 gizonak), Alemania, Frantzia, Irlanda, Suedia, Norvegia, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Polonia eta Italiako enpresa eta erakundeetan.
- *Santander-CRUE-CEPYME. Prácticas en empresa* beka programa kudeatu dugu (2015-2016 deialdia): 185 pertsonak praktikak egin dituzte EAEko harrera enpresetan (% 47,2 emakumeak eta % 52,8 gizonak).
- *TALENTIA* programan parte hartu dugu (Bilbo, martxoa-maiatza 2016): UPV/EHUko 90 kidek parte hartu dute guztira.

### 1.1.2. EKINTZAILETZAREN ARLOAN LAGUNTZA ETA AHOLKU EMATEA IKASLEEI, AUTOENPLEGUA SUSTATZE ALDERA; KOOPERATIBA ETA ENPRESA ARLOKO PRESTAKUNTZA EMATEA.

- Sortutako enpresak: 10.
- Enpresak inkubazioan: 39.
- Ekintzailletza kultura sustatzeko jarduerak eta ekintzak egin dira hirur campusetan: Mintegiak, Ekintzailletza eta Sormen Tailerra, Zitek Bilbao Valley Entrepreneur Day, "Ikasi ekiten" proiektua, INIZIA-AGUDEZIA ekintzailletza tailerra, ETORKIZULAN, EKINDUZ lehiaketa, THINK BIG lehiaketa, INIZIA Arabacampus sariak, ABIATU

sariak, Aukerak Bilatzeko Tailerra, Klaus Northen hitzaldia, Sustainable Week, ZitekCoffees, ZITEK ezagutarazteko hitzaldiak. 2.547 unibertsitate ikaslek parte hartu dute (% 52 emakumeak eta % 48 gizonak).

- Diagnostiko Teknologikoko saio bat jarri dugu martxan Bio-Osasunaren arloko teknologia eta ezagutza espezifikoa lantzen duten ikertaldeekin, enpresa berriak sortzeari begira alor honek izan dezakeen bideragarritasuna aztertzeko, edo interesa duten enpresekin lankidetzan teknologia transferitzeko. Saio hau ekimen zabalago baten barnean kokatzen da: 2014ko irailaz geroztik Bic Gipuzkoa zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza Sailak hainbat ikerkunerekin garatzen ari direna (Cic Biomagune, Vicomtech, Cidetec, BioDonostia), jakintza arlo bakoitzeko aholkulari adituen laguntzaz eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazioarekin. UPV/EHUk bat egin du egitasmoarekin 2016ko jardun planean, era honetako diagnostikoak egiteko.
- Berritu egin da Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren (CEIA) eta UPV/EHUren arteko hitzarmena, ekintzaileentzako laguntza eta aholkularitza programak sortu eta oinarri teknologikoko enpresak sortzeko Arabako Campusean.
- Gasteizko Enpresa Zentroen Sareko ekintzaileei aholkularitza eta laguntza eskaintzeko jardueren antolakuntzan eta garapenean parte hartu dugu.
- Elkarlanean aritu gara Ekonomia eta Enpresa Fakultatearekin (Donostiako atala) EKINUP lehiaketan. Lehiaketaren diseinua egin eta lehen edizioa antolatu dugu. Ikasleek 5 orduko prestakuntza jaso dute, ideia bat definitu eta ebaluatzeko moduari buruz. Ondoren, beren proiektuak/ekimenak aurkeztu dituzte. 14 proiektuk parte hartu dute eta bi saritu dira.
- Entreprenari programaren barnean, prestakuntza tailer bat sortu da iker-tzaileentzat, doktoregaiantzat bereziki. Tailerrak "NOLA EBALUATU/BALORIZATU IDEIA BAT NEGOZIO BIHURtZEKO?" du izena, eta sei hilabetetik behin egingo da.
- Elkarlanean aritu gara Kimika Fakultatearekin ekintzailetzari buruzko modulu bat sortzeko "Kimika eta Polimeroak" Unibertsitate Masterraren barnean.
- Elkarlanean aritu gara Psikologia Fakultatearekin ekintzailetzari buruzko modulu bat sortzeko "Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziala" Unibertsitate Masterraren barnean.

#### 1.1.3. Tituluen enplegarritasunaren egungo egoera eta ikasle tituludunen laneratzea aztertzea, enplegarritasuna indartuko duten hobekuntza ekintzak egiteko.

- Azterlan bat egin dugu 2012ko tituludunen laneratzeari buruz (5.530 egresatu, guztira). Okupazio tasa % 82,9koa da gradudunen artean, eta % 83,9koa, graduondokoa egin dutenen artean, jarduera tasa % 95,6koa izanik.
- *Laneratze joeren eta unibertsitatearen eraginaren inguruko ikerketa* (2016) egin eta aurkeztu dugu (2016ko uztailaren 22an).

#### 1.1.4. EHUAlumni proiektua diseinatzea eta ezartzea.

- 2016ko apirilaren 14an Bizkaia Aretoan egin zen ekitaldi baten bidez, UPV/EHUko ikasle ohien sarea sortu zen. Hainbat programa jarri dira martxan (<http://www.ehu.eus/es/web/alumni>).

## 1.2. IKERKETARAKO BOKAZIOA SUSTATZEA

### 1.2.1. Ikerketako Zerbitzu Nagusietara bisita dibulгатiboak egiteko programa zehaztea lanbide heziketako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeekin.

- SGIkerretan, DBHko ikasleengan bokazio zientifikoak eta ikertzaileak pizteko jarduerak jarri dira martxan. Zehazki, honako hauek:
- 2015eko abenduaren 14an, "Detektibe izan nahi duzu sarean?" izeneko tailerra egin zen, UPV/EHUko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan (Bizkaiko Campusa). Bilboko La Salle Ikastetxeko DBH3ko 20 ikaslek parte hartu zuten (15 neska eta 5 mutil).
- 2016ko urtarrileko eta otsaileko hiru astelehenetan, ikastetxe horretako beste 10 ikasle (6 mutil eta 4 neska) 3 jarduera zientifikotan aritu ziren: "Auzitegi teknika", "Ingurumen istripua" eta "Nola iraun bizirik irla batean". SGIkerretako 6 unitate arduratu zuten jarduerak antolatzeaz, diziplinarteko ikuspegi batetik.
- Bizkaiko Analisi Zerbitzu Nagusiaren elkarlana Bilboko Itsasadarreko uren kalitatea aztertu eta kontrolatzeko jardueretan, Sestaoko Amor Misericordioso Ikastetxeko ikasleek ELHUYAR programaren barnean garatutakoak.

### 1.2.2. SGIker unitateak ikergune legez eskaintzea graduiko ikasleek praktika jarduerak egin ditzaten.

- 2016ko otsailaren 18an, Zuzenbide Fakultatean, "Zure gradu amaierako lana hobetzeko 10 aholku" izeneko tailerra egin zen, bibliometria edukiez osatua. 8 ikertzailek parte hartu zuten.
- Zientzia eta Teknologia Fakultatean eginiko "Unibertsitate lan mundura" jardunaldiaren barnean, SGIkerreko teknikari batek bere lan esperientzia azaldu die Kimikako Graduiko ikasleei.

### 1.2.3. Lantokiko Prestakuntza programako ikasleak SGIker Unitateetan hartzea.

- 2016ko lehen hiruhilekoan, goi mailako prestakuntza moduluetak 7 ikasle hartu ditugu (3 neska eta 4 mutil), ikastetxe hauetakoak: LHII Tartanga, LHII Elorrieta-Erreka Mari eta, aurten lehen aldiz, LHII San José de Calasanz. 2016ko maiatzaren 18an egin zen dibulgazio jardunaldi batean, Lantokiko Prestakuntza programari atxikitako ikasleek beren praktika amaierako memoriak aurkeztu zizkieten tutoreei.

## 1.3. IKASLEEN PARTAIDETZA UNIBERTSITATEKO JARDUERETAN

### 1.3.1. Berdinen arteko Tutoretza Plana unibertsitateko beste ikastegi batzuetara zabaltzea.

- Berdinen arteko Tutoretza Plana UPV/EHUko 7 ikastegitan ezarri da: Letren Fakultatea, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola eta Psikologia Fakultatea. Programan parte hartu dute 1. mailako 37 ikasle taldek, azken mailetak 76 ikasle tutorek (% 71 emakumeak eta % 29 gizonak) eta ikasle tutoreei lagundu dieten 17 irakaslek (% 53 emakumeak eta % 47 gizonak).

- 1.3.2. Ikasleen I. Partaidetza Planaren ezarpen eremua zabaltzea eta partaidetza batzordea sortzea.
- Ikasleen I. Partaidetza Planeko ekintza puntualak garatu dira, txosten honen atal espezifikoetan jasoak; hala nola Eztabaida Liga, Berdinen arteko Tutoretza Plana, Batzorde parekidea, elkarte sektorialak. Ekintza horiez gainera, beste hauek ere egin dira: IKD Gazte programa, "Mikro-Polis" mikro-kontakizunen lehiaketaren II. edizioa, eta UPV/EHUren Irudiaren zabalkundeari emandako saria.
- 1.3.3. Ikasleen ordezkarien elkarte sektorialen partaidetza sustatzea kanpoko foroetan.
- Ikasleen kontseiluen ordezkariak estatu mailako 15 bilkura sektorialetan parte hartu dute.
  - Estatu mailako bilkura sektorial bat antolatu dugu. Zehazki: CEDEII batzarra (Industria Ingeniaritzako Ikasleen Estatuko Kontseilua), 2016ko apirilaren 5 eta 10 artean.
- 1.3.4. Talde ordezkariak hautatzeko protokoloa onartzea eta sozializatzea.
- 2016ko otsailaren 25ean, elkarte sektorialetako ekitaldietara joateko arautegia onartu zen UPV/EHUko ikasleen gaietarako batzorde parekidean.
- 1.3.5. Ikasleei zuzendutako jardueretarako laguntzen berri zabaltzea ikastegietan eta aholku ematea.
- 18 ikastegik parte hartu dute (ikastegi berrantolaketa ondoen) ikasleekin zerikusia duten jardueretarako laguntzen programan.
- 1.3.6. Unibertsitateko elkarteak sortzeko ekimenak bultzatzea. Ikasleen elkartegintzaren eskuliburua lantzea.
- 6 elkarte berri eman dute izena, eta 35 elkarte daude gaur egun erregistratuta.
- 1.3.7. G-9 taldearen VIII. Eztabaida Ligan parte hartzea.
- G-9ren VIII. Eztabaida Ligan parte hartu dugu. Amaierako fasea Errioxan egin zen, 2016ko martxoaren 16, 17 eta 18an, eta azken eztabaida, Errioxako Parlamentuan.
- 1.3.8. Unibertsitate arteko IV. Euskarazko Eztabaida Liga antolatzea: gonbidapena inguruko 6 unibertsitateri (EAE, Nafarroa eta Iparraldekoak).
- Unibertsitate arteko IV. Euskarazko Eztabaida Liga antolatu dugu. Amaierako fasea UPV/EHUko Letren Fakultatean egin zen, 2015eko urriaren 9an, Eusko Legebiltzarrean.
- 1.3.9. UPV/EHUren irudia hobekien zabaltzen duten ikasleak saritzeko VI. deialdia egitea.
- Deialdia 2015eko urriaren 9an egin zen, eta sari banaketa, 2015eko abenduaren 14an, Bizkaia Aretoan.
- 1.3.10. Ikasleen ordezkarien lana aitortzeko ekitaldia egitea.
- 2015eko abenduaren 14an, Bizkaia Aretoan, 29 tituludun berriren aitortza ekitaldia egin zen, ikasleen ordezkari gisa eginiko lana eskertzeko.



1.3.11. Laguntza itzulgarriak gerora sortutako arazo ekonomikoengatik edo denboran irauten duten arazoengatik 2014/2015 ikasturteko matrikula ordaintzeko zailtasunak dituzten UPV/EHUko ikasleentzat.

- 69 ikaslek eskuratu dituzte laguntzak deialdi honetan.

#### **1.4. KALITATEZKO PRESTAKUNTZA, IREKIA ETA BERRITZAILEA**

1.4.1. Enpresak sortzeko eta bestelako egoeretarako ekimena eta gizarte erantzukizuna bultzatzeko jarduerak garatzea.

- Ikasleek Boluntarioen Programa Autogestionatuetan parte hartzea bultzatu dugu. Zehazki, 2015eko urriaren 6an eta 2016ko martxoaren 8an, Lehen Laguntzei buruzko bi jardunaldi antolatu ziren Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleentzat. Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikasleak arduratu ziren tailerren edukia zehaztu eta irakaskuntza emateaz, lan boluntario gisa. Irakasleen eskolako 43 ikaslek parte hartu zuten (% 94 emakumeak eta % 6 gizonak).
- "IKD GAZtE: UPV/EHUn ekimen sena garatzeko curriculum nitxo berriak" ekimenaren bosgarren edizioa egin dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. 62 ikaslek parte hartu dute (% 75,8 emakumeak eta % 24,2 gizonak) Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Moduluan ("Proiektuak eraikitzen dituzten ideiak" izenburupean). Ikasleak, Gipuzkoako Campuseko 10 ikastegietakoak, diziplina anitzeko bederatzi taldetan antolatu dira, edizio honetan parte hartu duten bederatzi gizarte eragileei erantzuteko: Albaola Itsas Kultur Elkarte, Bilboko Udala, UPV/EHUko Jasangarritasun Saila, EiTB, Emaus, Kalapie, ONCE-IBTCRI, San Markoko Mankomunitatea eta Saretuz.
- Edizio honen talde sustatzaileak lau komunikazio, bi artikulua eta bi poster aurkeztu ditu Unibertsitate Irakaskuntzako IX. Iberoamerikako Batzarrean (EIE, AIDU eta Murtziako Unibertsitatea. Murtzia, 2016ko apirila) eta Hezkuntza Berrikuntza, Gizarte Konpromisoa eta Beste Zeharkako Gaitasunen arloko Ikerketa Batzarrean (UPV/EHU. Bilbo, 2016ko maiatza).

1.4.2. Euskarazko irakats materialak argitaratzea, eta euskarazko materiala urriagoa den diziplinetan materialak sortzea bultzatzea. Irakasle-ikertzaileei materialak prestatzen laguntzeko deialdiak egitea.

- UPV/EHUko irakasleek sortutako 26 irakaskuntza material argitaratu dira.
- Euskarara itzuli dira 5 eskuliburu tekniko, eta 19 liburu argitaratu dira euskaraz. Gabezia handiagoa duten diziplinei eman zaie lehentasuna.
- LEGEAR-LEYES eta LIMES bildumetako 2 testu itzuli dira.

#### **1.5. UNIBERTSITATE AURREKO IKASLEEN ETA UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ARTEAN GRADUEI BURUZKO EZAGUTZA ZABALTZEA.**

1.5.1. Ikasleentzako Argibide Zerbitzua indartzea, unibertsitateko eta unibertsitate aurreko ikasleei irakaskuntzaren arloko informazioa helarazteko zubi izan dadin. Ikasleei unibertsitateko graduei buruzko banan banako informazioa ematea eta aholku eta laguntza ematea.

- 4.989 ikasleren kontsultei erantzun zaie (2015eko irailaren eta 2016ko ekainaren artean eginiko kontsultak).

1.5.2. Hobekuntza ekintzak proposatzea eta sinergiak sortzea Bigarren Hezkuntzako orientatzaileek eta helduen hezkuntzarako zentroek UPV/EHUrekin duten komunikazioan: Topaketak, Materialak, etab.

- UPV/EHUri buruzko informazio saioak egin ditugu EAetik kanpo, jaso ditugun eskaerei erantzunez (Baionako Bernat Etxepare Lizeoa, adibidez).
- Unibertsitate ikastegiak informazio saioak egin dituzte DBH ikastetxeetan, beren tituluei buruzko informazioa emateko.
- "Ikasleentzako Argibide Zerbitzuaren Gida" argitaratu dugu, eta haren edukia azaldu zaie DBHko ikastetxeei, helduentzako hezkuntza zentroeiei eta Berritzeguneei. Formatu digitalean eskura daiteke, zerbitzuaren web orrian.
- Unibertsitate Sartzeko Proben aurreko urteko azterketak argitaratu ditugu unibertsitatearen webean, emaitzen laburpen estatistiko batekin batera.
- 2015eko maiatzaren 20, 21 eta 22an, VI. *Orientazio Topaketa* egin zen, *Aldaketei aurre eginez* izenburupean, EAeko DBH, Batxilergo, LH, Arte eta Kirol Ikasketak, Helduen Zentro eta Berritzeguneetako zuzendari, orientatzaile eta ikasketa buruentsat, hiru campusetan.

1.5.3. Jarduerak antolatzea unibertsitate aurreko ikasleei UPV/EHUri buruzko informazio akademikoa eta eskaintako ikasketetarako orientazioa emateko xedez: unibertsitateko orientazio azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak, 25 eta 45 urtetik gorakoentzako informazio saioak, lan esperientziaren bidezko sarrera, batxilergoko ikasleentzako jarduera praktikoen programa, goi mailako zikloetatik, ikasketa artistikoetatik eta kirol ikasketetatik sartzeko bidea.

- 2015eko abenduaren 3tik 2016ko martxoaren 3ra, Orientazioko Jarduera Praktikoen Programa antolatu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean. 4.344 ikaslek (% 55 emakumeak eta % 45 gizonak) eta DBH ikastetxeetako 86 arduradunek (% 59 emakumeak eta % 41 gizonak) parte hartu zuten.
- 2016ko urtarrilaren 23tik otsailaren 6ra, Unibertsitate Orientaziorako Azokak antolatu ziren hiru campusetan. 7.788 lagunek parte hartu zuten (% 71 emakumeak eta % 29 gizonak).
- 2016ko otsailaren 26tik martxoaren 18ra, Ateak Zabaltzeko Egunak antolatu ziren hiru campusetan. 5.045 lagunek parte hartu zuten (% 63 emakumeak eta % 37 gizonak).
- "Informazio eta Orientazio Jardunaldia" antolatu dugu 25 eta 45 urtetik gorakoentzako probaren bidez eta lan esperientziaren bitartez sartzen diren pertsonentzat. 94 lagunek parte hartu dute (% 54 emakumeak eta % 37 gizonak).

1.5.4. UPV/EHUko eskaintza akademikoari buruzko informazio materialak eguneratzea: Graduako triptikoak eta Graduako eskuliburuak, jakintza arloen arabera multzokatuak, eta Orientazio gida.

- UPV/EHUko graduen informazio triptikoak eguneratu ditugu.
- "Graduko Ikasketa Eskaintza" dokumentua osatu dugu, 4 irizpidetan antolatua (jakintza arloa, campusa, gradua eta ikastegia), graduen eskaintza osoa eta horietako bakoitzeko espezialitateak/aipamenak/ibilbideak biltzen dituena.

1.5.5. IAZ jardueren berri zabaltzea zerbitzu horren web gunearen eta beste hedabide batzuen bitartez.

- Etengabe eguneratu ditugu webaren edukiak. Orientazio arloan eginiko lanek oihartzun zabala izan dute hedabideetan.
- Zerbitzuak eginiko jardueren berri eman da hedabideen bitartez (prentsa oharrak, telebista, irratia, web orria, etab.).

## 1.6. IKASLEENTZAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

1.6.1. Eskaria egiten duten ikasleei laguntza psikologikoa ematea, hiru campusetan, SPA/PAZren arautegiari jarraituz.

- Laguntza psikologikoko 176 eskaera berri jaso dira (% 69,3 emakumeak eta % 30,7 gizonak).
- 233 pertsona artatu dira, aurreko ikasturtetik kontsultan zeudenak barne (% 70,9 emakumeak eta % 29,1 gizonak).
- 941 saio egin dira guztira. Batez besteko saio kopurua 4,56koa da pertsona bakoitzeko, eta alta terapeutikoa lortu dutenena, 8koa.

1.6.2. Ikasleentzako programa psikoedukati boak eskaintzea.

- 7 tailer psikoedukati bo egin dira, 3 campusetan: "Azterketa garaian estresa eta herstura kudeatzea" (3 tailer), "Emozioak eta komunikazioa" (3 tailer) eta "Desira, erotismoa eta tratu onak" (1 tailer). 122 lagunek eman dute izena (% 75 emakumeak eta % 25 gizonak).

## **2. PROGRAMA. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK**

### **2.1. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEA ETA MODERNIZATZEA.**

#### **2.1.1. AZPkoen zenbait antolaketa egitura berraztertzea.**

- Ikasturtean zehar, AZPko langileen antolakuntza egiturak aztertu ditugu. Ondorioz, aldaketa batzuk egin dira unitate jakin batzuetako lanpostuen zerrendetan, kategoriak eta espezialitateak egokituta. Hala, Gobernu Kontseiluak hainbat aldaketa onartu zituen 2015eko urriaren 1ean eta abenduaren 17an eta 2016ko ekainaren 2an eta uztailaren 7an egin zituen bilkuretan.

#### **2.1.2. Ikastegi berrantolaketa eragindako aldaketak egitea Lanpostuen Zerrendan eta organigrametan.**

- 2015eko abenduaren 17ko Gobernu Kontseiluak onartu egin zituen ikastegi berrantolaketa prozesutik sortutako ikastegi egitura berriak, eta EHAAn argitaratu ziren, 2016ko urtarrilaren 5ean (geroztik daude indarrean).

#### **2.1.3. Lan bermeei buruzko 2014ko irailaren 17ko akordioa betetzea.**

- UPV/EHUko ikastegiak berrantolatzeko prozesua dela-eta, AZPko Funtzionarioen eta Lan Kontratudunen Plangintza Batzordeak ezarritako lan bermeen Oinarrizko Akordioan, lanpostuen kudeaketaren arloan azterlan hau egiteko konpromisoa hartu zen:
  - Erreferentziazko plantilla berrikustea.
  - Lan kargak aztertzea.
  - Egiturak homologatzea.
  - Lantaldea egoki banatzea.

Ondorioz:

- Azterlan hori egiteko lantaldea eratu da.
- Lantalde horren barnean, Erreferentziazko Plantilla dokumentuaren berrikuspena eta eguneratzea aurkezteaz gainera, aldaketa batzuk egin dira lanpostuen zerrendan (aurreko atalean aipatutakoak), egiturak homologatzeari buruzko akordioari jarraituta.

#### **2.1.4. 2016ko lanaldiari buruzko zirkularra ezartzea, alde aurretik sindikatuekin negoziatuta.**

- UPV/EHUko gerenteak, 2015eko abenduaren 18ko erabakiaren bidez, onartu egin zuen Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen 2016ko lanaldi, ordutegi, opor eta baimenei buruzko zirkularra.
- AZPko Funtzionarioen eta Lan Kontratudunen Negoziazio Batzordeek aparteko ordutegiari buruzko akordioa hartu zuten 2016ko ekainaren 9an, eta Gobernu Kontseiluak berretsi zuen, 2016ko uztailaren 7an.

#### **2.1.5. Lan poltsak eguneratzea.**

- Lan poltsa hauetarako deia egin dugu, bai lan poltsak espezifikoki sortzeko bai egungoak zabaltzeko:

- Teknikari espezialistak: iturgintza, zurgintza, igeltserotza, pintura.
- SGIkerretako goi mailako teknikariak.
- I taldea - Irakaskuntza eta ikerketa laguntzeko goi mailako teknikaria (Mekanika).
- II taldea - Gestio maila ertaineko teknikaria (kiroletako teknikaria).
- Gestio maila goi mailako teknikaria (kirolen arduraduna).
- Teknikari espezialista (Osasuna/Animaliategia).
- II taldea - Irakaskuntza eta ikerketa laguntzeko maila ertaineko teknikaria (Mekanika); zeinu bidezko interpretazioko teknikaria.
- III taldea - Teknikari espezialista (Mekanika).
- Unibertsitateko gestioa (Erizaintza).
- Gestio maila teknikaria (Medikuntza).

#### 2.1.6. 2014-2017 Prestakuntza Plana garatzea.

- Prestakuntza jarduerak eskaini zaizkie Administrazio eta Zerbitzuetako langileei, urteko kudeaketa planen arabera egituratuak, 2014-2017 Prestakuntza Planaren garapen modura.
- Gainera, G9 taldearen plataformaren baitan eskaintzen den langile horientzako prestakuntza mantendu dugu.

#### 2.1.7. Lanpostuen balorazioari berrekiteko Baliozkotze Batzordea eratzea.

- Ikastegien berrantolaketa dela-eta sindikatuarekin hitzartu den lan bermeen akordioan, aurreikusita dago monografiak berrikustea eta lanpostuak baloratzea. Hala eta guztiz ere, lan hori egiteko, ezinbestekoa da lehenik akordio horretan jasotako prozesuak burutzeko, lanpostuen balorazioa lan kargen eta egituren homologazioaren analisitik lortutako behin betiko emaitzen mende dagoelako.

#### 2.1.8. Telelana ezartzea.

- 2016ko otsailaren 29an, telelanari buruzko akordioa erdietsi zuten AZPko Funtzionarioen eta Lan Kontratudunen Negoziazio Batzordeak.

### 2.2. ENPLEGUAREN KALITATEA ETA EGONKORTASUNA

#### 2.2.1. Sarrera eta promozio prozesuetarako arautegia aztertzea.

- 2016ko ekainaren 9an eta 30ean, bi akordio hitzartu ziren AZPko Funtzionarioen eta Lan Kontratudunen Negoziazio Batzordeetan: bata, 44 kontratudunentzako LEP bat onartzeko proposamenari buruzkoa; bestea, etorkizuneko deialdietarako oinarri orokor eta espezifikoen kontuan hartu beharreko gutxienezko irizpideei buruzkoa.
- 2016ko uztailaren 7an, Gobernu Kontseiluak bi akordioak berretsi zituen, eta 2016. urterako UPV/EHUren LEPa onartu.

### 2.3. ERRETIROAK

#### 2.3.1. Arloko arautegia aztertzea Erretiroen Batzorde Teknikoan.

- UPV/EHUen erretiroaren gaia eta egoera horretara igarotzeari lotutako neurriak aztertzen dituen Batzorde Teknikoak 2015eko uztailaren 24an hartu zuen akordioaren bidez, hainbat neurri arautu ziren AZPko langileentzat eta irakasle-ikertzaileentzat (ordu murrizketak, irakats ahalmen murrizketak eta erretiroa hartzeagatik baimen bereziak). Gobernu Kontseiluak akordio hori berretsi zuen, 2015eko urriaren 1ko bileran.

- UPV/EHUn erretiroaren gaia eta egoera horretara igarotzeari lotutako neurriak aztertzen dituen Batzorde Teknikoak 2015eko azaroaren 27an hartu zuen akordioaren bidez, bateratu egin ziren erretiro boluntario eta nahitaezkoetan AZPkoei eta irakasle-ikertzaileei eman beharreko kalte-ordainei buruzko xedapenak. Gobernu Kontseiluak akordio hori berretsi zuen, 2015eko abenduaren 17ko bileran.
- Bete egin dira erretiroei eta matrikula laguntzei buruzko epaiak.

### **3. PROGRAMA. IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK**

#### **3.1. JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA**

##### **3.1.1. Jardun Akademikoaren Plana birmoldatzea.**

- UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2015eko urriaren 1eko bileran, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen Jardun Akademikoaren Planaren birmoldaketa onartu zuen.

##### **3.1.2. Jardun Akademikoaren Planaren birmoldaketak 2015-2016 ikasturtean izandako emaitzak aztertzea.**

- Ikasturte amaieran, irakasle-ikertzaileen jarraipen batzordeak bilkura egin du 2015-2016 ikasturteko emaitzak aztertu eta hurrengo ikasturteko deialdirako aldaketa txiki batzuk proposatzeko.

#### **3.2. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN PLAN ZUZENDARIA**

##### **3.2.1. Irakasleen lehenengo Plan Zuzendariaren emaitzak aztertzea eta bigarren Plan Zuzendaria osatzeko lanekin hastea.**

- Ez da egin proposatutako jarduera.

#### **3.3. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZA**

##### **3.3.1. Irakasle-ikertzaileentzako prestakuntza programak diseinatu eta garatzea promozioa errazte aldera.**

- Irakasleen Hobekuntzarako Planaren 2016ko deialdia egin dugu, Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 4an onartu zuena.

##### **3.3.2. Ikastaroen eskaintza hobetzea irakaskuntzaren arloko prestakuntzarako eta irakasleen lana eguneratzeko.**

- 75 ikastaro eman dira guztira (15 Araban, 36 Bizkaian, 18 Gipuzkoan eta beste 6 ikastaro hiru campusetan), 1.059 ordu guztira, eta 1.364 lagunek eman dute izena (% 35 gizonak eta % 65 emakumeak).
- "AKADEME: UPV/EHUko emakume akademikoen lidergorako programa" izeneko egitasmoa jarri da martxan. Prestakuntza eta laguntza programa pilotu bat da, emakume akademikoen trebetasunak garatzeko, autolidergoan eta lidergoan, erantzukizuneko postuetara iritsi eta horietan irauteko, ikerketan, irakaskuntzan eta transferentziaren arloan. Gainera, prestakuntza eskaintza mantendu dugu genero eta berdintasun gaietan, jarduera hauek eskainiz: "Berdindu eskolak: sexu aniztasuna hezkuntza arloan" eta "Diskurtoaren analisi kritikoa ikuspegi feministatik".
- On-line prestakuntza eskaintzen jarraitu dugu: "eGela-k dituen berritasunak" eta "eGela: oinarritzko tresnak".
- Irakasle berrien prestakuntzari dagokionez, beste urtebetez, Irakasle Berrien Harrera Jardunaldia egin da hiru campusetan. 76 lagunek parte hartu dute

(% 37 gizonak eta % 63 emakumeak). Oraingo honetan, "UPV/EHUn irakastea. Oinarrizko orientazioak irakasle hasi berrientzat" izeneko gida banatu da jardunaldiko parte-hartzaileen artean. SAE/HELAZ zerbitzuaren webean eskura daiteke. Gainera, "Doitu: Zer hobetu dezaket nire irakaskuntzaren plangintzan?" ikastaroa eskaini dugu berriro, irakasleen lanaren plangintza eta garapena hobetzeko helburuarekin. Oraingo honetan, Docentiaz programaren eskakizunetara egokitzeko modua aztertu da. Ikastaro orokor bat eman da, 20 parte hartzaileekin (% 35 gizonak eta % 65 emakumeak), eta beste bi, ikastegitan fokalizatuak (Letren Fakultatea eta Zientzia eta Teknologia Fakultatea), 29 lagunekin (% 45 gizonak eta % 55 emakumeak).

- 5 prestakuntza tailer antolatu ditugu Docentiaz programako ebaluatzaileentzat, 83 irakasleren parte-hartzearekin (% 42 gizonak eta % 58 emakumeak), programa horren ebaluatzaileen poltsa bat sortzeko.
- Webean argitaratutako Irakaskuntza Gidak hobetzen jarraitzeko, aholkularitza telefonikoa eskaini zaie ikastegiei eta arduradunei, ekainean. Gainera, SAE-HELAZren web orrian, "GAUREn irakaskuntza gidak egiteko jarraibideak" izeneko laguntza materiala argitaratu da.
- Ikasketa planetan metodologia aktiboak ezartzen jarraitu dugu, irakasle taldeen parte hartzea sustatuz:
  - Metodologia aktiboen arloko prestakuntza: 2015-2016 ikasturtean, 47 irakaslek jaso dute prestakuntza metodologia aktiboetan (% 40 gizonak eta % 60 emakumeak). Guztira, 356 irakaslek dute metodologia aktiboen arloko prestakuntza (% 40 gizonak eta % 60 emakumeak), eta 70 gidari (% 43 gizonak eta % 57 emakumeak) ari dira metodologia aktiboak erakusten unibertsitateko gradu guztietan.
  - Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak (HBP): 2013-2015 deialdian, 200 lagunek parte hartu zuten (% 52 gizonak eta % 48 emakumeak), 31 proiektuekin. Deialdiaren emaitza gisa, 45 artikuluz zientifiko eta batzarretarako komunikazio argitaratu ziren. 2015-2017 deialdia 2016ko otsailean hasi zen, diruz lagundutako 31 proiektuekin, eta 250 pertsona ari dira parte hartzen (% 44 gizonak eta % 56 emakumeak). Deialdi honek bi modalitate ditu: HBT proiektuak (26) eta HBT ADITUAK proiektuak (5), hezkuntza berrikuntzan espezializatutako taldeentzat.
- 2015eko azaroaren 6an, "IKD Jendartea 2015: berrikuntza esperientzien trukea UPV/EHUn" jardunaldia egin zen, unibertsitatean eginiko berrikuntzen berri emateko. 100 lagunek parte hartu zuten (% 35 gizonak eta % 65 emakumeak).



## **4. PROGRAMA. GRADUKO ESKAINTZA IREKIA ETA BERRITZAILEA**

### **4.1. HEZKUNTZA EREDUA HOBETZEA ETA GRADUKO ESKAINTZA EGOKITZEA**

#### **4.1.1. Ikasketen kalitatea hobetzea tituluen jarraipenerako txostenen ebaluazioak eta emaitzak oinarri hartuta.**

- 2014-2015 ikasturtean eskaini ziren gradu eta master guztien Jarraipen Auto-txostenak egin eta berrikusi ditugu, eta Unibasq agentziara bidali dira ebaluatzeko, 2016ko lehen hiruhilekoan.
- Honako hauek sartu dira ikastegien Urteko Kudeaketa txostenean: Ehundu programan ezarritako konpromiso adierazleen kontu ematea; ikastegiko kudeaketaren adierazle gakoak emaitzak; eta haren kudeaketa sistemaren barne auditoria, AUDIT programako elementuekin alderatuta.
- Martxan jarri da 6.Konpromiso Dokumentua, Ehundu programaren barnean.
- Graduak 63 titulu eta 22 masterren akreditazioa berritu da, eta autoebaluazio txostenak egin dira graduak 4 titulu eta 13 masterren akreditazioa berritzeko (Unibasq agentziara bidali dira ebaluatzeko).

#### **4.1.2. Graduak Ikasketen Plan Estrategikoa egitea.**

- Ezin izan da amaitu, azterlan hauei aplikatzen zaien lege arautegiaren zehaztasun faltagatik.

#### **4.1.3. Ikasleek beren prestakuntzari buruz duten iritzia biltzea eta aztertzea.**

- EHUUn BIZI! programa osatu dugu, proba moduan, gradu bakoitzeko azken mailako ikaslearen iritzia bildu eta aztertzeko, UPV/EHUko Unibertsitate Esperientziari buruko galdetegi baten bidez. Galdetegiak oinarritzat ditu goi mailako ikaskuntzan eragin zuzena duten gaiak. Galdetegia UPV/EHUko 88 graduetatik 86tan banatu da, eta 3.325 erantzun jaso dira guztira (1.618 gaztelaniaz, 1.606 euskaraz eta 101 ingelesez). 2016-2017 ikasturtean, programa honen emaitzak argitaratuko dira.

#### **4.1.4. Tituluei buruzko informazio garrantzitsua eskuragarri dagoela bermatzea, adierazleen eta ebidentzien gardentasuna bultzatuta.**

- Eguneratu egin dira eta ikastegien esku jarri, ARTUS datu basearen UNIKUDE-SIIU ingurunean, tituluen jarraipen autotxostena eta tituluen akreditazioa berritzeko autoebaluazio txostenak egiteko behar diren emaitza guztiak. UNIKUDE aplikazioaren laguntzaz, txosten horietarako behar diren ebidentziak erantsi ditzakete ikastegiek kudeaketa sistemetan dituzten erregistroetatik.
- Eguneratu egin dira graduak titulu eta master guztien web orriak, dokumentu garrantzitsua argitaratzeko. Zehazki: titulu bakoitzaren Egiaztapen Memoria; agentzien txostenak (ANECA eta Unibasq), RUCT esteka, Unibasq agentziara bidalitako Jarraipen Autotxostenak, agentziak bidalitako Jarraipen txostenak, titulu bakoitzaren akreditazioa berritzeko Autoebaluazio txostenak, eta Unibasqen Akreditazio txostenak.

#### 4.1.5. Tituluak eskaera berrietara egokitzea, titulu bikoitzak sustatuz.

- 2015-2016 ikasturtean, graduko titulu bikoitzeko bi hitzarmen izenpetu ditugu: Informatika Fakultateak eta Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu dute Informatikaren Ingeniaritzako Gradurako; eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak eta Applied Sciences Mittwida (Alemania) unibertsitateak beste hitzarmen bat sinatu dute eskolako gradu guztietarako.
- Gainera, beste bi hitzarmen campusetako batzarretan onartzeke daude: Zientzia eta Teknologia Fakultateak eta Limogeseko Unibertsitateak Ingeniaritza Elektronikoko Gradurako eginiko hitzarmena, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Donostiako Atala) eta Hochschule Mittweida Unibertsitateak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradurako eginikoa.
- 2015eko azaroaren 5eko bilkuran, Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Gradua 2016-2017 ikasturtetik aurrera iraungitzen hasia onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Ikasturte honetan, Automozio Ingeniaritzako Graduko ikasketen memoriaren diseinua egin da, 2017-2018 ikasturtean ezartzeko Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan.
- 2015eko abenduaren 17ko bilkuran, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean ematen den Finantza eta Aseguruetako Gradua 2016-2017 ikasturtetik aurrera iraungitzen hasia onartu zuen Gobernu Kontseiluak, Aktuariotza eta Finantza Zientziak Unibertsitate Masterra eskaintzen hasi delako ikasturte honetan.
- Bilboko Irakasleen Eskolakorekin eta Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatearekin elkarlanean, lerro hiru eledun berri baten diseinua landu dugu bi ikastegi horiek eskaintzen duten Lehen Hezkuntzako Gradurako. Lerro hiru eledun berri hau 2016-2017 ikasturtean jarriko da martxan.

## 4.2. IKTAK ERABILTZEA AURREZ AURREKO ETA IKASGELAZ KANPOKO PRESTAKUNTZAN

### 4.2.1. Prestakuntza bultzatzea eduki digitalen sorkuntzan.

- Prestakuntza jardunaldiak antolatu dira e-learning teknikari eta irakasleentzat, helburua izanik baliabide materialen erabileran trebatzea, material multimedia diseinatu, sortu, banatu eta ustiatzeko, eta errealitate areagotuko ikaskuntza objektuak lantzeko.

### 4.2.2. Prestakuntza birtualerako kalitatezko proposamenak bultzatzea, etengabeko prestakuntza premiak asetzeko ere balioko dutenak.

- "Ikasnar 2016 International Conference. Hezkuntza irekia eta teknologia" batzarraren antolakuntzan parte hartu dugu, alor hauetan egin diren azken lanak dibulgatzeko: MOOC (On-line Ikastaro Masibo Irekiak), PLE (Ikaskuntza Pertsonalerako Inguruneak) eta LMS e-Learning plataformak (Ikaskuntzaren Administrazio Sistemak).
- MOOC ikastaroei buruzko prestakuntza jardunaldi bat antolatu dugu UPV/EHUko bigarren deialdian parte hartu duten irakasleentzat.
- MOOC ikastaro hauen lehen edizioa egin da: "Ikaskuntza digitaleko ingurune berriak"; "Tokiko giza garapena: proposamen alternatibo baterako oinarriak"; "Ekintzailtza: ideiatik ekintzara"; "Zurrunga egiten duen haurra"; "Emakumearen aurkako bortizkeria: gai penalak eta kriminologikoak".
- MOOC ikastaro hauen bigarren edizioa egin da: "Pentsamendu konputazionala Eskolan"; "Haurren asma: XXI. mendeko epidemia"; "Gizarte erantzukizuna eta jasangarritasun txostenak"; eta "Etika unibertsitateko ikerketan".

- 8 MOOC ikastaro sortzeko hirugarren deialdia zabaldu da UPV/EHUko irakasleentzat. Hautatutako ikastaroak 2016-2017 ikasturtean emango dira.
- 2016ko maiatzaren 26 eta 27an, Valentzian, “#itmLE16 I Encuentro Soluciones Moodle en el ámbito Universitario y Administraciones Públicas” topaketetan parte hartu genuen.
- e-learning praktika egokien VII. jardunaldia antolatu dugu UPV/EHUko irakasleentzat, hainbat arlotako esperientziak ezagutarazi eta partekatzeko: eGela, eGelaPI, MOOC, Errealitate Areagotua, praktikak simulazio digitalarekin, etc.

### 4.3. ESPERIENTZIA GELETAKO IKASKETA ESKAINTZA

#### 4.3.1. Esperientzia Gelei buruzko informazioa zabaltzea eta haien eskaintza ezagutaraztea.

- Arabako Campusean, hainbat elkarrizketa egin dizkiete Esperientzia Gelen zuzendariari eta ikasleei, Radio Vitoria, Onda Cero eta Cadena Ser irrati kateetan. Gainera, bi albiste argitaratu dira El Correo eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, 2015-2016 ikasturtearen hasierako eta amaierako ekitaldiei buruzkoak.
- Harremanetan izan gara eta informazioa trukatu dugu Araban adindunen prestakuntzaz arduratzen diren erakunde nagusiekin: Adindunentzako Zentro Soziokulturalak (Gasteizko Udalaren mendekoak), Hirugarren Adinekoentzako Gelak (Arabako Foru Aldundiaren mendekoak) eta Mejora Fundazioa (Vital Kutxa Fundazioaren mendekoa).
- Arabako Esperientzia Gelen egunkariak (“Esperientziaren ahotsa”) 25. eta 26. aleak argitaratu ditu (2016ko urtarrilean eta 2016ko maiatzean, hurrenez hurren), eta hainbat erakunde eta elkartetan banatu dira.
- Esperientzia Geletan sortutako ACAEXA antzerki taldeak hainbat saio egin ditu (Círculo Vitorianon, Casalarreinako Udaletxean eta Jesús Ibañez de Matauko antzokian –Gasteizko Hegoalde gizarte etxean kokatua–).
- Gipuzkoako Campusean, Esperientzia Gelei buruzko ikus-entzunezko programa bat osatu da GARA-NAIZ agerkariarentzat, eta Diario Vasco egunkariak hainbat erreportaje argitaratu ditu XIV. Promozioko Ikasketa Amaiera eta Diploma Banaketako ekitaldiari buruz.
- Gainera, hitzaldi ziklo bat antolatu da, “Gizarte, politika eta kulturako egungo gaiak” izenburupean (13 hitzaldi, zehazki), eta 20 Irteera Didaktiko, irakasgaien ikaskuntzan sakontzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan eta erkidegotik kanpo.
- Gipuzkoako Campuseko Esperientzia Gelek antolatu dituzten ekimen artistiko-kulturalen artean, aipatzekoa da IV. Lehiaketa Artistiko Multidiziplinarra geletako ikasleentzat, eta musika klasikoko eta garaikideko entzunaldiak.
- Bizkaiko Campusean, Esperientzia Gelen Proiektuaren zabalkundea indartu dugu gizartean, hedabideen bitartez, jarduera batzuei buruzko prentsa oharrak argitaratuz (erakusketak, liburuaren eguna, etab.), iragarkiak ipiniz ikasle berrien izen-emate epea zabaldu aurreko bi asteetan, Ateak Zabaltzeko Egunaren instituzionalizazioaren bidez, eta batzorde batzuetan parte hartuz (hala nola Gizarte Zerbitzuen Bilboko Udal Kontseilua eta Pertsona Adindunei buruzko Lan Batzordea). Gainera, Esperientzia Gelen Proiektua hedabideetan agertu da, zuzendariari eginiko elkarrizketetan (prentsa idatzia) eta erreportaje espezifikoen bidez (EITB).

#### **4.4. IKASLEEN PRESTAKUNTZA OSOA**

##### **4.4.1. Zeharkako prestakuntza jarduerak sustatzea, arreta berezia jarrita ikasleen gizarte konpromisoan eta hazkunde pertsonalean.**

- 2015-2016 ikasturtean, Garapenerako Lankidetzari buruzko 10 ikastaro monografiko eskaini dira, eta 230 lagun matrikulatu dira guztira (% 36 emakumeak eta % 64 gizonak). Ikastaroetan, gizarte erakundeek parte hartu dute, eta hainbat arlotan izandako esperientziak azaldu dituzte, hala nola osasunean, ingurumenean, hezkuntzan edo giza garapenerako teknologietan.
- Zehazki, 2015eko urriaren 6an eta 2016ko martxoaren 8an, Lehen Laguntzei buruzko bi jardunaldi antolatu ziren, Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleentzat. Medikuntza Fakultateko ikasleak arduratu ziren tailerren edukia zehaztu eta irakasteaz, lan boluntario gisa. Irakasleen eskolako 43 ikaslek parte hartu zuten (% 94 emakumeak eta % 6 gizonak).

#### **4.5. IKASLE EGRESATUEN LANERATZEA**

##### **4.5.1. Lan arloko erakundeekin akordioak bultzatzea, praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko.**

- 2015-2016 ikasturtean, 6.206 ikaslek (% 74,5 emakumeak eta % 25,5 gizonak) curriculum praktikak egin dituzte 1.628 enpresa eta erakundetan, dagozkion hitzarmenen bitartez. Curriculumez kanpoko praktikei dagokienez, 4.463 hitzarmen izenpetu dira, eta 3.860 ikaslek parte hartu dute guztira (% 51,3 emakumeak eta % 48,7 gizonak).

#### **4.6. KALITATEARI LOTURIKO AKREDITAZIOAK ETA ZIURTAGIRIAK GARATZEA**

##### **4.6.1. Ikastegiei aholku eta laguntza ematea, AUDIT programaren bidez, Kalitatearen Bermerako Barne Sistema (KBBS) ezartzeko.**

- Elkarlanean aritu gara atxikitako ikastegiekin (Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskola eta IMHko Ingeniaritza Dualaren Ingeniaritza Eskola) beren KBBS burutzeko. Merkataritza Ganberak Unibasq agentziaren ziurtagiria eskuratu du bere KBBSrentzat, AUDIT programaren bidez. IMHren kasuan, Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak amaitu egin du KBBSren berrikuspena, eta 2016ko irailean KBBSren diseinuaren ziurtagiria eskatuko da.
- Aldatu eta eguneratu egin da UNIKUDE-Ikastegiak eta UNIKUDE-Master aplikazioa, Master eta Doktorego Eskolaren KBBSa zehazteko, eta ikastegi bakoitzeko KBBSen erregistro guztien kudeaketa hobetzeko (akreditazio prozesuan kanpoko ebaluatzaileei aurkeztu behar zaizkien ebidentziak sortzen dituzten erregistroak).
- Ikasturtean zehar, UNIKUDE aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa eta prestakuntza eman zaizkie ikastegiei; zehazki, aplikazioetan eginiko aldaketei eta protokoloetan eginiko berrikuntzei buruzkoak.

4.6.2. Irakaskuntza ebaluazioko mekanismoak eguneratzea eta emaitzen gardentasuna indartzea.

- Docentiaz programaren bosgarren deialdiaren irakaskuntza ebaluazioaren emaitza orokorrak argitaratu dira, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren web orrian.
- 413 espediente berri ebaluatu dira Docentiaz programaren seigarren deialdian. Ondorioz, programaren bidez, unibertsitateko irakasle-ikertzaileen % 26a ebaluatzerira iritsi gara.

## 5. PROGRAMA. NAZIOARTEAN ERAKARGARRIA IZANGO DEN GRADUONDOKO ESKAINTZA, GURE INGURU EKONOMIKO ETA SOZIALERA EGOKITUA

### 5.1. GRADUONDOKO ESKAINTZA JASANGARRIA ETA KALITATEDUNA

#### 5.1.1. Ikerketako master lehiakorrek eta master profesionalak bultzatzea.

- 2015-2016 ikasturtean, 110 unibertsitate master eman dira, horietatik 10 atribuzio profesionalak dituztenak.

#### 5.1.2. Master profesionalak bultzatzea, praktikak eta Master Amaierako Lanak egiteko xedez erakundeekin hitzarmenak eginda.

- 2015-2016 ikasturtean, 10 master profesional eskaini ditugu, eta Aktuariatza eta Finantza Zientziak Masterraren titulu berria izapidetu.
- Master profesionalak eskaintzeko, hitzarmenak izenpetzen dira erakunde edo instituzioekin, praktikak eta master amaierako lanak egiteko, kanpoko irakasleak ekartzeko edo finantzaketa lortzeko:
  - “Laneko Segurtasuna eta Osasuna” unibertsitate masterra: 35 hitzarmen ditugu, praktikak egin eta master amaierako lanak zuzentzeko; gainera, OSALANekin sinatutako hitzarmena, kanpoko irakasle gehienak finantzatzeko.
  - “Irakasleen Prestakuntza” unibertsitate masterra: hitzarmen ugari ditugu ikastetxe publiko nahiz pribatuekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta UPV/EHUren arteko oinarritzako hitzarmenaren bidez kudeatzen direnak, ikasle guztiak nahitaezko praktikak egiteko aukera izan dezaten. Gainera, masterrak programa pilotu baten ezarpenean parte hartu du (*Policy Experimentation in School Education Sector*), EACEAren laguntzaz; horri esker, ikasle batzuek curriculum praktikak eta curriculumez kanpokoak egingo dituzte kontrako baldintzei aurre egin behar dieten inguruneetako ikastegietan. Elkarlanean dihardu ere Sánchez Mazas katedrarekin, curriculum praktikak egiteko.
  - “Abokatutza” unibertsitate masterra: lankidetzak hitzarmenak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko abokatuen elkargoekin, nahitaezko praktikak egiteko hainbat abokatu bulegotan. Gainera, elkargo horiekin eginiko hitzarmenetan, arautu egiten da kanpoko profesionalek emandako masterraren irakaskuntzaren % 50ren finantzaketa.
  - “Osasun Psikologia Orokorra” unibertsitate masterra: 15 lankidetzak hitzarmen sinatu ditugu fundazioekin eta beste erakunde batzuekin, curriculum praktikak egiteko.
  - “Industria Ingeniaritza” masterra: lankidetzak hitzarmenak sinatu ditugu 49 enpresarekin, curriculum praktikak egiteko.
  - “Telekomunikazio Ingeniaritza” unibertsitate masterra: lankidetzak hitzarmenak sinatu ditugu 26 enpresarekin, curriculum praktikak egiteko.
  - “Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea” unibertsitate masterra: 5 hitzarmen izenpetu ditugu, curriculum praktikak egiteko.

#### 5.1.3. Master eta doktorego programetako koordinatzaileei laguntza ematea, jarraipen eta akreditazio prozesuetan.

- Jarraipen eta akreditazio prozesuetan, aholkularitza eta laguntza eman zaizkie master eta doktorego programetako batzorde akademikoei.
- Prozesu horretan zeuden 22 masterren akreditazioa berritzea lortu dugu, eta prozesuan sartuko diren 13 masterren akreditazioa berritzea lagundu dugu.



- 96 unibertsitate masterren jarraipen txostenak aurkeztu ditugu.

#### 5.1.4. Espediente bikainak dituzten ikasleen partaidetza sustatzea gure masterretan.

- UPV/EHUn masterrak egiteko laguntzen deialdi bat egin dugu. 2015-2016 ikas-turtean, 3.000 €-ko 41 laguntza eta 1.500 €-ko 6 laguntza banatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko masterretako ikasleen artean. Gainera, 4.500 €-ko 18 laguntza eta 2.250 €-ko laguntza bat banatu dira beste autonomia erkidego edo herrialde batzuetako ikasleen artean.

#### 5.1.5. Prestakuntzarako zeharkako jarduerak egitea, bai bi hizkuntza ofizialetan bai ingelesez, laneratzea sustatzeko, diziplinartekotasuna indartzeko, konpromiso etiko eta soziala sendotzeko, eta ikasleen ekintzailtza bultzatzeko.

- 2015eko urrian, Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin batera, mugaz gaindiko dok barnetegien 5. edizioa antolatu genuen, Frantziako Biellen (ikus 5.3.4).
- Gainera, 2016ko maiatzean, gure 10 doktoregaik G9 taldearen Doktorego Jardunaldietan parte hartu zuten, Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatuta.
- Master eta Doktorego Eskolak zeharkako doktorego prestakuntzako jardueren katalogoa egin eta zabaldu du, eta, mugaz gaindiko dok barnetegiak gainera, ikastaro hauek eskaini ditu:
  - “English for International Congresses” ikastaroaren 6 edizio (40 orduko ikastaroa): 3 edizio Bizkaiko campusean, 1 Araban eta 2 Gipuzkoan.
  - “Academic English” ikastaroaren 2 edizio (Bizkaian eta Gipuzkoan).
  - “Doktoregorako informazio tresnak eta baliabideak” ikastaroaren 5 edizio, UPV/EHUko Liburutegiak antolatua eta eskaeraren arabera banatua hiru campusetan.
  - Beste hainbat ikastaro, euskaraz edo gaztelaniaz: hala nola “Hasten Ikasten”, “Nola ebaluatu ideia bat negozio bihurtzeko?”, “Hobetu zure aurkezpenak eta posterrak”, “Etika unibertsitateko ikerketan”, “Ikerketa jardueran hasteko tailerrak”.
- Eskolak UPV/EHUko I. Doktore Jardunaldiak antolatu zituen, 2016ko uztailearen 11 eta 12an, Bizkaia Aretoan. Jardunaldietan, gure unibertsitateko 400 doktoregai inguruk parte hartu zuten, eta 239 poster aurkezpen eta 65 ahozko komunikazio egin ziren. Doktoregaiek oso ondo baloratu zituzten jardunaldiak. Komunikazioen % 30 ingelesez izan ziren, eta % 14, euskaraz. Jardunaldi hauek diziplinarteko topagune izan dira doktorego programen barnean prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzat, eta prestakuntza maila honek berezkoak dituen gaitasunak eta trebetasunak landu dituzte.
- 2015eko urriaren 20 eta 23 artean, “Zuzenbidea, Filosofia, Ekonomia, Soziologia, Psikologia eta Hezkuntza Mundu Globalean. Gogoetak bizikidetzak kultural komunikatibo batentzat” nazioarteko biltzarraren 5. edizioa egin zen, Brasilgo Natal hirian. Biltzarra elkarlanean antolatu zuten Natalgo Unibertsitateak, Rio Grande do Norte Unibertsitate Federalak eta UPV/EHUK, eta Master eta Doktoregoen Latinoamerikako Sareko unibertsitate guztiek parte hartu zuten, beste gonbidatu batzuekin batera: hala nola Università degli Studi di Palermo edo Boliviako Kanpo Arazoetarako Kantzilertza. Biltzarreko jardunaldi eta erakusketetan, master eta doktoregoko 100 ikaslek baino gehiagok eta sare honetako irakasleek parte hartu zuten.
- Gainera, iritziak trukatu eta irtenbideak bilatu ziren sarea osatzen duten unibertsitateen administrazio zerbitzuen artean sortzen diren kudeaketa arloko arazoetarako.

#### 5.1.6. Mugaz Gaindiko Dok Barnetegien programa sustatzea.

- 2015eko urrian, Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin batera, mugaz gaindiko dok barnetegien 5. edizioa antolatu zen, Frantziako Biellen. Eraitza oso ona izan zen, iritzi inkestean arabera. 80 doktoregaik parte hartu zuten; 40, UPV/EHUkoak. 80 parte-hartzaileen artean, tesiak tutorekidetzan egiten ari ziren ikasleak zeuden, Bordele (1) eta Zaragozako (2) unibertsitateetakoak.
- Mugaz gaindiko dok barnetegien 6. edizioa antolatzeko lanak aurreratu dira. Biarnoko Salisen egingo dira, 2016ko urriaren 10 eta 14 artean, eta dagoeneko hautatu dira bi unibertsitateetako 80 hautagaiak.

#### 5.1.7. 99/2011 Errege Dekretuaren arabera egiaztatutako doktorego programa berrien administrazio kudeaketa indartzea.

- 2015-2016 ikasturtean, GAUR aplikazioa hobetu dugu, 99/2011 EDk araututako doktorego programa berriak kudeatzen dituen.

#### 5.1.8. Bizitza osoko prestakuntzako eredu jasangarria diseinatzea, irizpide akademikoekin eta premia sozioekonomikoekin bat datorrena.

- Berezko tituluetan matrikulatutako ikasle kopurua 600 ingurukoa izan da 2015-2016 ikasturtean eskainitako 35 tituluen barnean. Gainera, 885 ikasle erregistratu dira ikasketa osagarrien proposamenetan, 2016-2016 ikasturtean eskainitako 68 moduluen artean banatuak.

#### 5.1.9. Prestakuntza iraunkorra bultzatzea, lehentasuna emanez euskarazko eskaintzari eta euskal kulturarekin lotutako gaiei.

- 2014-2017 Graduondokoen Plan Estrategikoan, helburu estrategikotzat hartzen da euskal lurraldeekin eta kulturarekin lotura berezia duten ikasketak indartzea.
- Etengabeko prestakuntzaren barnean, 2015-2016 ikasturtean, 5 berezko titulu eman dira euskaraz, aurreko urtean baino bat gehiago. Gainera, ikastaro osagarri bat eman da osoki euskaraz, eta euskara eta gaztelania konbinatu dituzten beste zazpi.
- 2015-2016 ikasturtean, hurrengo ikasturteari begira, osoki euskaraz emango diren ikasketa osagarri berriak diseinatzen hasi gara orain arte landu ez diren arloetan; hala nola euskal dantzan oinarritutako ikastaro bat.

#### 5.1.10. Urrutiko irakaskuntzan, graduondokoen eskaintza bultzatzea.

- 2014-2017 Graduondokoen Plan Estrategikoan, "Lurraldearekiko lotura" atalean, helburu estrategikotzat hartu da *on-line* ikasketen eskaintza sustatzea, helburu hori betetzeko adierazleak ezartzeaz gainera. Horrekin batera, konpromiso dokumentuak sinatu dira masterrekin, helburu hori betetzeko adierazleak jasotzen dituztenak.

#### 5.1.11. UPV/EHUko graduondokoen eskaintza sustatu eta zabaltzeko jarduerak egitea (azokak, etab.).

- Master eta Doktorego Eskolako kideek, UPV/EHUko graduondokoen eskaintza sustatzeko hainbat erakundek antolatutako azoketan parte hartzeaz gainera (unibertsitate orientazioko azokak, FIEP, ESPECIALIZA I, Graduondoko Foroa-IFEMA), Master Astea antolatzen dute, graduondoko ikasketen eskaintza zabaltzeko. 2015-2016 ikasturtean, aste hori unibertsitateko hiru campusetan antolatu da (2016ko martxoaren 7tik 11ra).



- 5.1.12. Graduondokoen eskaintzari buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea webgunean, bai bi hizkuntza ofizialetan, bai ingelesez.
- Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzaren eta Master eta Doktorego Eskolaren webguneetan egindako hobekuntzei esker, graduondoko ikasketa ofizialen eskaintza euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez kontsulta daiteke.
  - Horrez gainera, master eta doktoregoetarako izena ematea eta matrikula GAUREn bidez egin daitezke, hiru hizkuntzetan.
- 5.1.13. Elkarlanean aritzea gobernuekin eta beste erakunde batzuekin Latinoamerikako ikasleak erakartzeko.
- Ikasturte osoan zehar, bilerak egin dira Boliviako Kanpo Arazoetarako Kantziler-tzarekin, herrialde horretako ikasleak erakartzeko. Aurreikuspenen arabera, 2016-2017 ikasturtean, Boliviako ikasleak matrikulatuko dira Hizkuntza Politikak Masterrean.

## 5.2. GRADUONDOKOEN PLAN ESTRATEGIKOA

- 5.2.1. Graduondokoen Plan Estrategikoa (2014-2017) ezartzea, konpromiso dokumentuen bitartez, egungo eskaintza moldatu eta euskal gizarteak dituen premiei hobeto egokitutako eskaintza bat egiteko.
- Graduondokoen Plan Estrategikoa (2014-2017) ezartzen jarraitzeko, 2015eko lehen hiruhilekoan, konpromiso dokumentua bidali zitzaien unibertsitate masterretako batzorde akademikoetako kideei, datuak baliozkotzeko eta dokumentua hobetzeko balioko zuten ekarpenak nahiz iradokizunak egiteko.
2015. urtearen amaieran, ekarpenak aztertzeaz arduratuko zen batzordea sortu zen, konpromiso dokumentua eguneratu eta hobetzeko balioko zuten adierazle berriak definitu, aldatu eta onartzeko ekarpen horien arabera. Ondoren, maiatzaren lehen hamabostaldian, konpromiso dokumentu berriak bidali zitzaizkien unibertsitate masterretako batzorde akademikoetako kideei, dokumentuak bete eta atzera itzul zitzaizkien.

## 5.3. GRADUONDOKOEN ESKAINTZA NAZIOARTERA ZABALTZEA

- 5.3.1. Master eta doktorego tituluetan gure unibertsitatearen eta atzerriko unibertsitateen arteko lankidetzaren bultzatzea.
- Master eta doktorego ikasketen 10 titulu antolatu ditugu elkarlanean atzerriko unibertsitateekin.
- 5.3.2. Master eta doktorego programak nazioartera zabaltzeko ekimenak bultzatzea, eskaintza osoa edo eskaintzaren zati bat hizkuntza ez ofizialetan ematearen aldeko apustua eginez, beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko.
- 9 master osorik ingelesez eman dira, eta beste 5 masterretan edukiaren % 50 edo gehiago eman da ingelesez. Gainera, doktorego programetan, doktorego tesiak ingelesez egitea bultzatzen ari gara, baita beste hizkuntza batzuetan ere, eta bultzada hori ingelesez defendatutako tesien eta nazioarteko tesien igoeran hauteman daiteke.
  - UPV/EHUk Erasmus Mundusek onartutako bi nazioarteko master ematen ditu, eta horietako baten koordinatzailea da.

- 2015-2016 ikasturtean, masterretan matrikulatutako 3.169 ikasleen artetik (% 47,58 gizonak eta % 52,42 emakumeak), 520 (% 16,41) atzerritarrak ziren (% 41,92 gizonak eta % 58,08 emakumeak), honela banatuta jatorriaren arabera: Latinoamerikako 357 (% 68,65; % 35,57 gizonak eta % 64,43 emakumeak), Europako 92 (% 17,69; % 64,13 gizonak eta % 35,87 emakumeak), Ipar Amerikako 17 (% 3,3; % 41,18 gizonak eta % 58,82 emakumeak), Asiako 31 (% 5,96; % 41,93 gizonak eta % 58,07 emakumeak) eta Afrikako 23 (% 4,42; % 52,17 gizonak eta % 47,83 emakumeak).
- 2015-2016 ikasturtean matrikulatutako 3.977 doktoregaien artean (% 47,09 gizonak eta % 52,91 emakumeak), 832 (% 20,92) atzerritarrak ziren (% 49,88 gizonak eta % 50,12 emakumeak), honela banatuta jatorriaren arabera: Latinoamerikako 530 (% 63,70; % 48,11 emakumeak eta % 51,89 gizonak); Europako 204 (% 24,52; % 60,78 emakumeak eta % 39,22 gizonak); Asiako 49 (% 5,89; % 38,77 emakumeak eta % 61,23 gizonak); Afrikako 29 (% 3,48; % 37,93 emakumeak eta % 62,07 gizonak) eta Ipar Amerikako 20 (% 2,41; % 40 emakumeak eta % 60 gizonak).

### 5.3.3. Nazioarteko doktorego tesiak eta tutorekidetzan egindakoak bultzatzea.

- 2015-2016 ikasturtean, 574 doktorego tesi defendatu ziren (% 52,44 emakumeak eta % 47,56 gizonak); hots, % 34ko gehikuntza izan zen 2014-2015 ikasturtean defendatutako 429 doktorego tesiei dagokienez. 574 tesi horien artetik, 171k Nazioarteko Tesi aipamena jaso zuten (% 58,48 emakumeak eta % 41,52 gizonak), 213 ingelesez idatzi ziren (% 57,75 emakumeak eta % 42,25 gizonak) eta 56 euskaraz (% 66 emakumeak eta % 34 gizonak). Datu horien gehigarri moduan, aipatzekoa da 2015-2016 ikasturtean gora egin dutela, 2014-2015 ikasturteari dagokionez, ingelesez idatzitako tesiak (% 4) eta batez ere euskaraz idatzitakoak (% 22). 2015-2016 ikasturtean, tutorekidetzan eginiko 13 tesi defendatu dira, eta gehikuntza % 86koa izan da 2014-2015 ikasturtean defendatutakoei dagokienez. Gaur egun, 95 doktoregai ari dira beren tesi proiektua garatzen tutorekidetza erregimenean (% 43 emakumeak eta % 57 gizonak).

### 5.3.4. Atzerriko unibertsitateetako prestakuntza bidean dauden ikertzaileek UPV/EHUn egiten dituzten egonaldiak sustatzea, doktorego tesiak egiteko tutorekidetza erregimenean.

- Prestakuntza bidean dauden UPV/EHUko ikertzaileek atzerriko unibertsitateetan egonaldiak egin ditzaten laguntza deialdia egin dugu; bai eta prestakuntza bidean dauden atzerriko unibertsitateetako ikertzaileek UPV/EHUn egonaldiak egiteko ere, doktorego tesiak egin ditzaten tutorekidetzan. 3 laguntza eman dira UPV/EHUko prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzat, egonaldiak egiteko unibertsitate hauetan: Kirgыз National University (Ukraina), Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea eta Université de Valenciennes (Frantzia). Gainera, beste 3 laguntza eman zaizkie unibertsitate hauetako doktoregaiak: University of Nevada (Reno, AEB), Université degli Studi di Roma (Italia) eta Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea.

### 5.3.5. Euskaraz egin eta nazioarteko aipamena duten doktorego tesiak bultzatzea.

- Ikasturte honetan defendatutako nazioarteko 171 tesien artean, 20 izan dira nazioarteko aipamena jaso duten euskarazko tesiak; aurreko ikasturtean aldi berean defendatutakoak baino 2 gehiago.

### 5.3.6. Master eta Doktoregoen Latinoamerikako Sarea indartzea eta zabaltzea, eta sare horretako unibertsitateekin ditugun titulu bikoitzak sendotzea.

- Guztira, 2015-2016 ikasturtean, 342 ikasle matrikulatu ziren Latinoamerikako Master eta Doktoregoen Sareko graduondoko ofizialetan. Kopuru horretatik,

143 master ofizialetan izan zen (% 29,37 gizonak eta % 70,63 emakumeak); 199, doktorego programetan (% 53,27 gizonak eta % 46,73 emakumeak).

- Gaur egun, UPV/EHUk master eta doktorego ikasketak egiteko hitzarmenak izenpetuta ditu Latinoamerikako sareko 11 unibertsitateekin.
- Bestetik, Latinoamerikako unibertsitateekin partekatzen ditugun bi master titulu daude. Alde batetik, "Filosofia, Zientzia eta Balioak" masterra, Mexikoko Universidad Nacional Autonomarekin; 17 ikasle matrikulatu dira, eta horietatik 5 latinoamerikarrak dira. Bestetik, "Ingeniaritza Biomedikoa" Masterra, Paraguaiko Asuncion Unibertsitatearekin; 24 ikasle matrikulatu dira.

#### 5.3.7. Doktoregoen Latinoamerikako Sareko masterretan matrikulatuta dauden Latinoamerikako ikasleek doktorego tesien defentsa egin dezaten sustatzea.

- Azken bi ikasturteetan, nabarmen egin du gora Doktoregoko Ikasketen Latinoamerikako Sarean defendatu diren tesien kopuruak. 2015-2016 ikasturtean, 18 doktorego tesi defendatu dira sare honen barnean, 2014-2015 ikasturtean baino % 13 gehiago.

#### 5.3.8. Akitaniako unibertsitateekin ezarritako lankidetzak esparruan titulu bikoitzak bultzatzea.

- Unibertsitate masterreko titulu bikoitzeko hiru hitzarmen sinatu ditugu: bi hitzarmen, Bordeleko Unibertsitatearekin, "Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzatik eta Nazioartekotzetik" masterrera eta "Finantzak eta Finantza Zuzendaritza" masterrera; beste hitzarmen bat, l'École Supérieure des Technologies Industrielles Avancées (ESTIA) eskolarekin, "Ingeniaritza Industria Antolakuntzan" masterrera.
- Bestetik, "Enologia Berritzailea" masterrera titulu bikoitzeko hitzarmen baten izapidetzea amaitu dugu Bordeleko Unibertsitatearekin.

#### 5.3.9. Euro-eskualdeko unibertsitateekin tutorekidetzan eginiko tesiak sustatzea.

- 2015-2016 ikasturtean, 65 hitzarmen izapidetu dira tutorekidetzan doktore tesiak egiteko. Horietatik 20, Bordeleko Unibertsitatearekin eta Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin sinatu dira.

#### 5.3.10. Gure graduondoko prestakuntza eskaintza euskal diasporan zabaltzea.

- Graduondokoen Plan Estrategikoaren (2014-2017) helburu estrategikoetako bat da eskaintza hori euskal diasporan zabaltzea, diasporako ikasleak erakartzeko gure unibertsitatera. 2015eko uztailan Jaialdi 2015 festan parte hartu (bost urtean behin Boisen ospatzen den euskal diasporaren jaia) eta standa Boise State Universityrekin partekatu ondoren (UPV/EHUren graduondoko eskaintza aurkeztu genuen hor), Nevadako Unibertsitatearekin (Reno) tutorekidetzako hiru hitzarmen hitzartzeko negoziazioaren amaierako fasean gaude.

## 6. PROGRAMA. UNIBERTSITATE IKERTZAILEA

### 6.1. IKERKETAREN ARLOKO JARDUERAK ETA LANKIDETZAN EGINDAKO IKERKETA

#### 6.1.1. Babesa ematea ikerketa taldeen jarraipenari eta deialdi lehiakorretan baliabideak erakartzeari.

- Estatuko eta erkidegoetako deialdiak: webgunean, estatutako eta erkidegoetako hainbat erakunderen 106 deialdi argitaratu ditugu (bakoitzaren puntu nagusien laburpen bat barne). Era berean, deialdi horiei dagozkien 1.299 eskaera kudeatu dira.
- Nazioarteko deialdiak: 201 finantzaketa eskaera izapidetu dira nazioarteko deialdi lehiakorretan (122, H2020 programakoak, eta 79, nazioarteko beste programa batzuetakoak). Emandako proiektuei dagokienez, 40 proiektu berri kudeatu eta administratu dira: 4, 7PMkoak; 20, H2020koak; eta beste 16, Europako Esparru Programatik kanpoko nazioarteko beste deialdi batzuetakoak. Gainera, 2015-2016 aldian, 124 proiektu biziren kudeaketarekin jarraitu genuen (7PMko 55 proiektu, 2015-2016 aldian oraindik bizirik zeudenak; H2020ko 22; eta beste programa batzuetako 47).
- I+G Nazioarteko Bulegoaren 2015 urteko jardueren txostenean, eginiko ekintza guztiak zehazten dira:  
<http://www.ehu.es/documents/2458339/2828436/Informe+2015>
- Ikerketako Zerbitzu nagusiak (SGIker):
  - Guztira, arreta eskaini diegu UPV/EHUko 253 ikertzaileari eta ikertzaile nagusiri (barne erabiltzaileak, % 36 emakumeak eta % 64 gizonak) eta 154 enpresari eta partikularri (kanpo erabiltzaileak).
  - 2.066 barne zerbitzu eman ditugu, eta 547 kanpo zerbitzu.
  - 2015ean, SGIkerrek zuzenean aipatzen zituzten 359 artikuluko zientifiko argitaratu ziren; 2004az geroztik, 2.131 artikuluko.
  - 353 ikerketa proiektu lagundu ditugu: horien artetik, 10ek Europako finantzaketa jasotzen dute; 100ek, estatuko finantzaketa; 210ek, eskualde mailakoa; eta 33k, finantzaketa pribatua.
- 2016ko maiatzaren 5ean, aurkezpen bat antolatu eta bisitaldi gidatu bat egin zen "Rita Levi" Animaliategira, UPV/EHUko ikertzaileentzat. Parte-hartzaileak gonbidatu ziren beren ekarpenak egitera, ahalik eta gehien optimizatzeko instalazioaren errendimendua.
- SGIkerren 2015eko Jardueren txostenak eginiko jarduera guztiak biltzen ditu:  
<http://www.ehu.es/es/web/sgiker/dokumentuak/ekintza-memoria>
- 899 kontratu egin ziren.

#### 6.1.2. SGIker Unitateetako ikastaroak egokitzea ikerketa gutxiko arloetara.

- Tailer hauek antolatu ziren:
  - 2015eko irailaren 21ean, seiurtekoak eta akreditazioak Lege Zientzietan tailerra, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Zuzenbide Fakultatean. 19 lagunek parte hartu zuten: 16 irakasle-ikertzailek eta 3 AZPko langilek. (% 58 gizonak eta % 42 emakumeak).
  - 2015eko urriaren 21ean, Erizaintzako Ikerketa Estrategiei buruzko jardunaldia, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Biblioteka nagusiaren eraikinean. 15

lagunek parte hartu zuten: 14 irakasle-ikertzailek eta AZPko langile batek. (% 80 emakumeak eta % 20 gizonak).

- 2015eko azaroaren 6an, seiurtekoak eta akreditazioak Arte Ederretan tailerra, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Arte Ederren Fakultatean. 50 lagunek parte hartu zuten: 34 irakasle-ikertzailek, graduondoko 15 ikaslek eta AZPko langile batek. (% 64 emakumeak eta % 36 gizonak).
- 2016ko urtarrilaren 12an, Erizaintzan eragina duten adierazleei buruzko saioa, erizaintzako irakasleen jardunaldien barnean, Erizaintza Eskolan. 40 pertsonak parte hartu zuten (% 95 emakumeak eta % 5 gizonak).
- 2016ko apirilaren 4an eta 11n, ikerketa jardueran hasteko tailerrak, Doktorego Eskolarako. 29 lagunek eman zuten izena (% 62 emakumeak eta % 38 gizonak).
- 2016ko apirilaren 18an, "Medical Devices: I+Getik Merkatura" jardunaldia, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean, 22 lagunen parte-hartzearekin (% 77 emakumeak eta % 23 gizonak).
- 2016ko maiatzaren 25ean, "Animaliategiaren egoera sanitarioa eta haren eragina emaitza esperimentaletan: arazoak eta irtenbideak" jardunaldia, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean. 19 lagunek parte hartu zuten (% 74 emakumeak eta % 22 gizonak).

#### 6.1.3. Ikerketa proiektuetako lider berriak bultzatzea, belaunaldi aldaketa bermatzeko.

- UPV/EHUko aurrekontuaren bidez, 40 urte edo gutxiago dituzten ikertzaile nagusiek zuzendutako 16 ikerketa proiektu berri finantzatu dira (% 63 emakumeak eta % 37 gizonak).
- Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatuzko 2015eko deialdian, esperientzia pilotu gisa, doktorego tesien zuzendaritzan gazte ikertzaileen parte hartzea bultzatu genuen; horretarako, puntu gehiago eman ziren, zuzendarietako batek 1998-2008 aldian doktoregoa lortu izanaren baldintza betetzen bazuen. 331 eskaeren artean 176k ikertzaile gazteak aurkeztu zituzten tesi zuzendari gisa, eta horietatik 43 aukeratu ziren. Baldintza hori sartu dugu ere 2016ko deialdian.

#### 6.1.4. Prestakuntza ematea prestakuntza bidean dauden ikertzaileen eta doktore gazteen lehiakortasuna hobetzeko.

- 2015ean, SGIkerrek 16 prestakuntza ikastaro eskaini dituzte, eta 134 pertsonak parte hartu dute guztira (% 66 emakumeak eta % 34 gizonak); horietatik, 70 prestakuntza bidean zeuden ikertzaileak ziren (% 69 emakumeak eta % 31 gizonak).
- SGIkerretako 17 unitatek giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarri dituzte, eta prestakuntza eta ikerkuntza izaerako 33 jarduera egin dira guztira UPV/EHUren 21 masterretan. Master horien artean daude Europako master bat, berezko titulu bat eta unibertsitate arteko beste 2 master (horietako bat Cantabriako Unibertsitatearekin batera ematen da, eta bestea, Valladolideko Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera).
- SGIkerrek laguntza eman dute master amaierako 54 lan egiteko (% 39 emakumeek eginikoak eta % 61, gizonak). 54 lan horietatik, 4k kanpoko zuzendarikidetzan izan dute (3 CIDETEC zentroarena eta 1, Bordeleko Unibertsitatearena).
- Master ikasle bat hartu dugu master amaierako lana egiteko Bizkaiko Analisi Zerbitzu Nagusian (ikasle mota hau hartzen den bosgarren urtea da).
- 2016an, 24 ikastaro berri eskaini dira (Ekorketazko Mikroskopia Elektronikoa eta Transmisiozko Mikroskopia Elektronikoa, besteak beste), ISO 17025 ziurtagiriari buruzko ezagutzak partekatuzko ikastaro berri bat (kalitatezko erreferentzia saiakuntza laborategientzat).



6.1.5. Lankidetzaren bultzatzea informazioa, prestakuntza eta metodologiak trukatzeko irakaskuntzaren arloko ekoizpen zientifikoaren eta ikerketako ekoizpenaren inguruko datuak lortu, tratatu eta aztertzeko xedez; batez ere, G9 taldeko unibertsitateen artean.

- 2015ean, Ikerketako Zerbitzu Nagusien azpiegiturak partekatzearen estrategiaren barnean, 27 zerbitzu egin zaizkie guztira G9 taldeko unibertsitateetako ikertzaileei.

6.1.6. Emakumeen lidergoa eta parte hartzea bultzatzea ikerketaren arloan.

- UPV/EHUko ikerketa proiektuen 2015 eta 2016ko deialdietan, diskriminazio positiboko faktore bat sartu dugu, eta horren arabera bi puntu gehitzen zaizkie emakumezko INak dituzten eskaerei.
- 2015ean, SGIkerrek 92 IN emakumeren ikerketa jardura bultzatu dute (IN guztien % 36). 2014an, 111 izan ziren (% 40).

6.1.7. 2011-2014 ikerketa plana ebaluatzea eta ikerketa plan berria egitea

- 2015eko urriko Gobernu Kontseiluak 2011-2014 ikerketa planaren ebaluazioa aurkeztu zuen, eta plan berria egiteko prozesuan gaude orain.

## **6.2. IKERKETA NAZIOARTERA ZABALTZEA**

6.2.1. Ikerketaren arloko lankidetzaren bultzatzea Europar Batasunetik kanpoko herrialdeekin.

- 5 lankidetzaren ikerketa proiektu sinatu ditugu Europatik kanpoko estatu bakoitzeko erakundeekin. Gainera, lankidetzaren hitzarmenak eta elkar aditzeko memorandumak sinatu ditugu EBtik kanpoko herrialde bakoitzeko 3 erakunderekin.
- Diruz lagundu dira AEBko Gobernuarekin eginiko 3 ikerketa proiektu.
- Ikerketako Zerbitzu Nagusiek laguntza eman diete atzerriko 22 erakunderi (horietatik 13, unibertsitateak). Den-denak Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan, eta laguntza eskaini zaie AEB, Errusia eta Suitzako 4 erakunderi (horietatik 2 unibertsitateak dira, Errusian eta Suitzan).
- Institutional Biocontainment Resources erakundeak gonbidatuta, SGIkerren koordinatzailea biosegurtasun eta biokontzentzioari buruzko prestakuntza ikastaro batean egon da, University of Texas-eko Branch Galveston National Lab laborategiaren Keiller eraikinean (AEB).
- SGIkerrek gonbidapena jaso dute "Characterization of cider apples juices using 1H spectra shift" izeneko txostena aurkezteko Mexikoko Universidad Autonoma Metropolitana-aren Graduondokoaren Erresonantzia Magnetiko Nuklearraren III. Sinposioan.

6.2.2. HORIZON 2020 programan baliabide gehiago lortzeko laguntza ematea.

- 2015. urtean, UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoak laguntza eman die UPV/EHUko ikertzaileei, H2020 programaren deialdietara 122 eskaera aurkezteko (% 33,8 IN emakumeak). Horien artean, 20 proiektu lortu dute finantzaketa (% 15 emakumeak).
- Nazioarteko proiektuetan eta, batez ere, Batasunaren Esparru Programetan parte hartzea sustatzeko 34 laguntza eman ditugu (% 26 emakumeak).

- Etengabeko ahalegina egin dugu Europako finantzaketari buruzko UPV/EHUren informazio webgunea eguneratzeko eta hobetzeko –<http://www.ehu.es/europeanprojects>–. Informazioa jarri dugu irekita dauden H2020 deialdiei buruz, Europako ekimenei buruz, jardunaldi eta *info-days* ekimenari buruz, mintegiei buruz, baita Nazioarteko I+G Bulegoak antolatutako ikastaroei buruz ere.
- Euskal erakundeekin (Tecnalia, BERC) eginiko akordioek aukera eman digute 2020 Horizon programaren lankidetzako lau proiektu berritan parte hartzeko.

### 6.2.3. Prestakuntza ematea irakasle-ikertzaileei eta AZPkoei, H2020 programan baliabideak lortzeko trebezia hobetzeko.

- Ikastaroen eta informazio, komunikazio eta kontzientziazio jardunaldien bidez (12, guztira), handitzen ari da ikertzaileen Europarekiko interesa. Jarduera horietako batzuk estatuko eragileen, aholkularien eta kanpoko adituen ardurapean daude; beste batzuk, aldiz, Europako eta Nazioarteko Proiektuen Bulegoak kideek eskaintzen dituzte.

UPV/EHUko Nazioarteko I+G Bulegoak kanpo aholkulariekin antolatutako prestakuntza ekintzen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- “How to write a competitive proposal for HORIZON2020”, HYPEYON Ltd-ek eskainia, (azaroa 2015), Bilboko Bizkaia Aretoan.
- H2020 6 Erronka: “Europa mundu aldakor batean: gizarte inklusiboak, berri-tzaileak eta gogoetatzailerak” informazio jardunaldia (azaroa 2015).
- “ACCIONES COST” informazio jardunaldia (otsaila 2016).
- “Hezkuntza berrikuntzako Europako proiektuek unibertsitate irakasleei eskaintzen dizkieten garapen aukerak” ikastaroa (urtarrila 2016). Carlos Santamaria Zentroa.
- Prestakuntza ikastaro bat egin da irakasle-ikertzaile hautagarriek Marie Curie Workshop H2020 MSCA-Individual Fellowships deialdietan parte har dezaten sustatzeko. How to write a competitive proposal (maiatza 2016), Jose Mari Korta zentroan. “Mentoring” saioak talde txikietan egiteko aukera eskaini zen. 4 ikertzailek parte hartu zuten saio horietan (% 100 emakumeak).

## 6.3. IKERKETAKO EMAITZAK TRANSFERITZEA

### 6.3.1. UPV/EHUko ikertzaileen eta inguru sozioekonomikoaren arteko lankidetzaren indartzea.

- Ikerketaren Kudeaketa Zuzendaritzan, 13 lankidetzaren hitzarmen sinatu dira inguru sozioekonomikoko erakundeekin.
- Unibertsitatea-Gizartea deialdiko 9 proiektu eman dira.
- Lankidetzan aritu gara Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin eta Kontsumo eta Osasun Sailarekin, aholkularitza emateko, analisiak egiteko eta prestakuntza emateko legez kanpoko substantzia adiktiboen laginei buruzko txosten eta azterketetan.
- Lankidetzan jarraitzen dugu Krispiñako Ur Araztegiarekin, hondakin uren kutsatzaileak analizatzeko.
- Lankidetzaren Ertzaintzaren polizia zientifikoarekin, aholkularitza eskaintzeko, analisiak egiteko eta prestakuntza emateko.
- Lankidetzaren AEBIOS elkartearekin (Espainiako Biosegurtasun Erakundea). SGikerretako kideak erakunde horren Zuzendaritza Batzordean daude.

- 92 lankidetzak hitzarmen izenpetu ditugu ingurune sozioekonomikoko erakundeekin.
- 899 kontratu egin dira.
- 2015eko urriaren 8an, Zabalduz beken bigarren jarraipen jardunaldia egin zen. Jardunaldi horretan, 30 doktoregaik azalpen laburrak eman zituzten beren doktore bekan ordura arte lortu zituzten emaitzei buruz. Tesi zuzendariak izan zituzten ondoan, bai UPV/EHUkoak bai tesien zuzendarikidetzaz arduratzen ziren enpresetakoak. Ahozko azalpenekin batera, doktoregai bakoitzaren kartel zientifikoak erakutsi ziren.

### 6.3.2. Ekintzailatza programak bultzatzea, baita oinarri teknologikoko enpresak sortzea ere.

- 2015ean, 11 enpresa sortu ziren (1 Araban, 6 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan).
- Mintegien kudeaketa bi kontzeptu nagusitan islatzen da:

#### Kultura ekintzailea

Araba: Ikastegiaren proiektu pilotuaren helburua da ikasleak ekintzailatza eraiki eta sustatzea duen garrantziaz ohartzea. 6 saio egin dira, eta 252 ikaslek parte hartu dute. Unibertsitateko kide guztiei eta UPV/EHUri lotutako pertsonari eskainitako jardunaldi eta ikastaroei dagokienez, 6 ikastaro eskaini dira guztira, eta 75 lagunek parte hartu dute.

Ekintzailatza indartzeko jarduerak berri bat sortu dugu ("Ekinduz Arabacampus"), helburutzat duena enpresen sorkuntzari lotutako gaiak era ludikoan lantzea Ekinduz jolasaren bidez.

Gipuzkoa: Foroak, Tailerrak, Mintegiak eta master lankidetzak egin dira, 230 pertsonaren partaidetzaz. Gainera, prestakuntza espezifikoko ikastaroak antolatu ditugu, ekintzaileentzat eta Ikertaldeentzat, enpresak sortu eta kudeatzeari lotuta. 60 lagunek parte hartu dute.

Bizkaia: Bizkaiko Campusean honako jarduerak egin dira: Hasten Ikasten mintegiak, 177 pertsonaren partaidetzaz; txosten aurkezpenak ikastegietan, 104 lagunen partaidetzaz; E-Emprende, Etorbizulana eta Think Big lehiaketak; Coworking guneak (Zitek Coffee); eta ekintzailatza eta sorkuntza tailerrak, 154 lagunen partaidetzarekin. 1.818 lagunek parte hartu dute ekintza horietan guztietan.

#### Enpresa proiektuak

Araba: Inizia Sariaren bidez, 4 sari eman dira (8.000 € guztira). Agudezia programan, 13 proiektu aurkeztu dira; horietatik 3 inkubazio fasera igaro dira, eta azkenean enpresa bat sortu da. Bilerak egin dira hainbat Ikertalderekin, ekintzailatza arloan zer behar dituzten jakiteko eta Inizia Programaren barnean sartzeko aukera eskaintzeko.

Gipuzkoa: 35 negozio ideia identifikatu ondoren, 15 proiektu berri sortu dira (guztiak Entreprenari programaren barruan). 8 proiektu inkubazio fasera igaro dira, eta azkenean 4 enpresa sortu dira. 14 hautagaitza aurkeztu dira ikasleentzako Think Big sarira. Bestetik, unibertsitateko kideentzako Manuel Laborde sarira, helburu nagusitzat duena enpresa proiektu berriak identifikatzea, 14 hautagaitza ere aurkeztu dira.

Bizkaia: Banan-banako ekarpenen bidez gauzatzen diren Etorbizulana eta E-Emprende lehiaketetan, 528 eta 291 pertsonak parte hartu dute, hurrenez hurren. Think Big sarira, 17 proiektu aurkeztu dira, eta 57 pertsonak parte hartu dute guztira. Proiektuen inkubazioa indartu egin da, Ekintzailatza Gela sortzean eta Zitek Coffee ekimenarekin coworkinga egitean. 6 enpresa sortu dira.



6.3.3. Jarduera zientifiko-teknologikoari buruzko prestakuntza diseinatzea, eta inguru sozioekonomikoan ezartzea.

- 20 ikastaro/mintegi/tailer eman dira hauetan 2.500 pertsonak (%52 emakumezkoek) parte hartu dutelarik.

## **6.4. DOKTOREEN BALORAZIOA ETA GARRANTZIA GIZARTEAN**

6.4.1. Doktorego tesiei zabalkunde handiagoa ematea.

- Zientziometria Unitateak emandako 5 tailerretan, doktorego tesiak Open Access bidez zabaltzeari lotutako edukiak eman dira.

6.4.2. Doktoregoa egin ondorengo nazioarteko zentroetako egonaldiak sustatzea.

- 2015-2016 ikasturtean, doktorego ondoko 14 ikertzailek 1 hilabete eta urtebete arteko hamabost egonaldi egin dituzte nazioarteko unibertsitate eta ikerketa zentroetan: 7 egonaldi AEBn, 3 txilen, 1 txinan, 1 Ukrainan, 2 Argentinan eta 1 Brasilen.

6.4.3. Programa bat garatzea gaitasun indibidualak garatzeko, bai zientziaren eta teknologiaren arlokoak, bai nazioartean erreferente diren erakundeen gestioaren arlokoak ere, horren bidez doktoreak inguru sozioekonomikoan sartzeko bidea errazteko.

- Gaitasun zientifiko-teknologiko-sozialak eta kudeaketa arlokoak sustatu ditugu, 40 doktoreren mugikortasuna eta egonaldiak finantzatuta, Europako hainbat norakotara, nazioartean ospea duten erakunde sozioekonomikoetan lan egiteko: hala nola Polar Institute of Norway, Mediterranean Institute of Oceanography de Marseille, Frantziako eta AEBko TOTAL Inc. Petrochemical Industries, Telefónica, Iberdrola, Europako Trenbide Garraioan Ikertzeko Kontsortzioa (Shift2Rail) eta Ingurumen Psikologiakoa.
- Ikertzaile batzuek aukera izan dute elkarlanean aritzeko European pisu handia duten erakundeekin (Europako Parlamentua, Europako Estandarizazio Batzordea, Europako Eskualdeen Batzordea), eta Europako klusterretan eta plataformetan aritu dira, unibertsitatearen izenean. UPV/EHUk, ikasturtean zehar, 4 akordio berri egin ditu nazioarteko plataformekin (EMBRC-European Marine Biological Resource Centre, ER-European Radioecology Alliance Association, Etsi-European Telecommunications Standards Institute, N.ERGHY-European Research Grouping on Fuel Cells and Hydrogen), halako moldez, non dagoeneko 20 diren UPV/EHUren partaidetza aktiboa duen plataformak.

## **6.5. IKERKETAREN KALITATEA**

6.5.1. Ikerketako Zerbitzu Nagusien kalitatea egiaztatzeke prozesua bultzatzea.

- ISO 17025 analisi tekniken akreditazioaren berrebaluazio positiboa SGIkerren Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Nagusian.
- Ahaidetasun biologikoko analisi tekniketarako ISO 17025 kalitate kudeaketako sistema ezarri da Sekuentziario eta Genotipatu Zerbitzuan (aitatasun probak). Kanpoko auditoria gainditu eta teknika honen akreditazioa lortu dugu (otsaila 2016).
- Arabako Animaliategia sartu dugu AENOR erakundeak emandako ISO 9001 ziurtagiriaren barnean.
- Kalitate prozesuak eguneratzeko helburuarekin, kalitate ziurtagiria berritu dugu, ISO 9001:2015 arau berrira egokituta, honako unitate eta zerbitzu hauetan: Bizkaiko

Animaliategia, Araba eta Bizkaiko Analisi Kimikoa, Bizkaiko RMN eta Gipuzkoako RMN Unitateak, Polimeroen Karakterizazio Zerbitzua, RAMAN-LASPEA Zerbitzu Orokorra, X Izpien Zerbitzua: XPS Unitatea eta Arroka eta Mineralen Unitatea monokristalen analisisan, baita etengabeko prestakuntzan ere.

- RAMAN-LASPEA Unitatearen Zerbitzuen Karta onartzea, UPV/EHUREN Zerbitzuen Karten arautegi berriaren onespenearekin batera (2016ko otsaila). Zerbitzuen karta hau 2013ko deialdian osatu zen. Gaur egun, XPS Unitatean Zerbitzuen Karta egitea xede duen 2016ko deialdian parte hartzen dugu.

#### 6.5.2. Ikerketaren gestioa hobetzea: prozesuen araberako gestiorako proiektu pilotua garatzea.

- Enpresa Baliabideak Planifikatzeko sistemaren garapen fasea amaitu da, eta gaur egun lanean ari gara prozesuen funtzionaltasuna eta ikusgarritasuna, baita haien erabilera ere, hobetzeko plataformaren diseinuan eta maketazioan.

#### 6.5.3. Ikerketaren arloko errektoreordetzako langileen etengabeko prestakuntza bultzatzea.

- UPV/EHUKO Nazioarteko I+G Bulegoko langileek 24 jardueratan parte hartu dute (ikastaroak, topaketak, jardunaldiak, hitzaldiak eta *infoday*-ak).
- 2015ean, SGIkerretako kideek 46 prestakuntza jardueratan parte hartu dute. Guztira, 1.350 ordu izan dira; 25 ordu batez beste SGIkerrei atxikitako pertsona bakoitzeko, eta haren lanaldiaren % 1,38.
- Barne ezagutzaren kudeaketa jardueren garapenean, SGIkerretako 3 teknikaririk ikasle gisa parte hartu dute SGIkerrek berek antolatutako eta eskainitako 3 prestakuntza jardueretan.

### 6.6. ZIENTZIAREN ETA IKERKETAREN ZABALKUNDEA

#### 6.6.1. Ikerketaren eta berrikuntzaren arloko jardueren zabalkundea bultzatzea gizarteko komunikabideetan.

- Guztira, 123 prentsa ohar bidali dira, ikerketa proiektuei buruzko albisteak emateko.
- Punta Begoñako Galeriak eraikin historikoa lehengoratzeko Getxoko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren barnean, hainbat bisitaldi gidatu antolatu dira 2015ean, herritarrentzat, UPV/EHUKO 5 ikertaldekin egin dituzten ikerketa lanak *in situ* erakusteko, lan horiek zerikusi handia dutelako ezagutza transferentziarekin eta dibulgazioarekin, eta adibide ezin hobea direlako erakusteko nola jar daitezkeen unibertsitatearen ezagutzak gizartearen zerbitzura. Hitzarmen hau Proiektu Enblematikotzat hartu da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskadi 2020 planaren barnean.

#### 6.6.2. Zientzia eta Teknologiaren Astea.

- Bost egun hauetan UPV/EHUREN Zientzia Astearen hiru egoitza berrietan izan den parte-hartzea oso esanguratsua izan da. 6.000 ikasle baino gehiago etorri dira, 136 ikastetxetatik, eta 2.630 lagunek parte hartu dute tailerretan eta txangoetan, 2015eko egoitza berrietan antolatutako jarduera iraunkorretara hurbildu den publiko handiaz gainera: Bizkaia Aretoa, Bibat Museoa eta San Telmo Museoa.
- 2015eko edizioako jardueretan aldaketak izan dira, bai edukian bai forman, eta eskaintza zabalduz doa urtetik urtera, UPV/EHUKO zientzialari gero eta gehiagoren

parte-hartzeari eta konpromisoari esker. Horrela, 2015. urtean, 45 stand ipini ziren (19 Bilbon, 14 Gasteizen eta 12 Donostian), 33 tailer antolatu ziren (14 Gasteizen, 11 Bilbon eta 8 Donostian) eta 21 txango egin ziren (11 Gasteizen, 7 Bilbon eta 3 Donostian); gainera, 2 lehiaketa, 4 ikuskizun zientifiko eta Zientzia Club bakarrik zientifikoen programa arrakastatsua era eskaini ziren.

#### 6.6.3. Eleaniztasuna indartzea zientziaren zabalkundean.

- UPV/EHUK dibulgazio zientifikoko artikulak argitaratu ditu egunero, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, kultura zientifikoko katedrako Zientzia Kaiera, Mujeres con Ciencia eta Mapping Ignorance blogen bitartez.

#### 6.6.4. Euskaraz egiten den zabalkunde zientifikoa indartzea.

- Hitzarmena ETBko "Tecnopolis" saioarekin, UPV/EHUKo jarduerak aurkezteko. Zehazki, 22 aldiz agertu da UPV/EHU saioan, ikertaldeen, ikastegiekin, sailek... egin dituzten lanen harira.
- Dibulgazio zientifiko eta teknologikoko "Zientzialari" irrati saioan parte hartzea eta laguntzea, Bilbo Hiria Irratiaren eta kultura zientifikoko katedraren arteko lankidetzaren bidez.
- Laguntza eman zaio zientziaren zabalkunderako euskaraz argitaratzen den "Zientzia Kaiera" blogari.

### 6.7. ETIKA IKERKETAN

#### 6.7.1. UPV/EHUKo batzordeetako ebaluatzaileen etengabeko prestakuntza sustatzea.

- Ebaluatzaileek hainbat ikastaro, bilera eta ebaluatzaileen prestakuntzarako jardunalditan parte hartu dute:
  - "Reclutamiento en proyectos de investigación" (Zaragoza).
  - "Nazioarteko ikerketa giza genetikan" (Bilbo).
  - "Metodologiaren ebaluazio irizpideak ikerketa proiektuetan" (Leioa).
  - "Ciencias del animal de Laboratorio" (Madril).
  - Animaliekin eginiko ikerketari eta legedi berriari buruzko bilera Bizkaian (Zamudio).

#### 6.7.2. Prestakuntza indartzea ikerketa arloko etikan.

- 1.400 kontsulta egin dira (telefono bidez, bilerarekin eta/edo desplazamendua-rekin) ikerketari lotutako alderdi etikoei buruz, eta aholkularitza eskaini da ikerketa proiektuen ebaluazioan, gradu amaierako lanak, master eta tesi amaiera.
- "Etika unibertsitateko ikerketan" MOOC ikastaroaren 2. edizioa egin dugu.
- UPV/EHUKo campus bakoitzean, ikerketa arloko etikari buruzko 2 saio egin dira: lan ereduak, aplikazio berriaren erabilera eta ebaluazio irizpideak proiektu, GRAL, MAL eta Doktore Tesietarako.

## 7. PROGRAMA. JAKINTZA TRANSFERITZEA GIZARTEAREN ONURARAKO

### 7.1. NAZIOARTEKO BIKAINASUN CAMPUSA ETA EUSKADI 2020 ZTBP

7.1.1. Lankidetzaren sendotzea inguruko eragileekin, nagusiki Euskampus NBC Proiektuari lotutako erakundeekin, eta ekimenak garatzea elkarlanean.

- DIPCren eta Teknalia Korporazioaren atxikimendua duen UPV/EHUren Euskampus NBC Proiektuak kalifikazio handiena lortu du, "A, AURRERABIDE EGOKIA", eta, hortaz, behin betiko Nazioarteko Bikaintasun Campus kalifikazioa merezi du, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ebazpenak dioenari jarraiki.
- Lehengo lankidetzaren hitzarmenak berritu, eta berriak sinatu ditugu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko hainbat eragileekin.

7.1.2. I+G+B programa eta jardueretan parte hartzea Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa garatzeko.

- Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusaren garapenean, Bordeleko Unibertsitateak eta UPV/EHUk, beren kide estrategikoekin batera, Ingeniaritza Mekanikoko Mugaz Gaindiko Baterako I+G Laborategia eta Eskala Kuantikoko Kimikako eta Fisika Teorikoko Mugaz Gaindiko Baterako I+G Laborategia sortzea onartu dute.
- Euroeskualde mailako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Bordeleko Unibertsitateak, Hego Lapurdiko Hiriguneak eta UPV/EHUk, Sokoako gotorlekuan Ocean Experiences Plataforma aztertzeke eta garatzeko.
- UPV/EHUk eta Bordeleko Unibertsitateak euroeskualde mailako II. Euskampus-Idex Bordeaux sinposioa antolatu zuten Donostian 2015eko azaroan.

### 7.2. ELKARTZEAK ETA LOTURAK EKOIZPEN ETA GIZARTE SAREAREKIN

7.2.1. Aliantza estrategikoak bultzatzea fabrikazio aurreratuaren, energiaren eta biozientzien alorrean, bai eta Euskadi RIS3n antzemandako aukera nitxoetan ere.

- UPV/EHUren hainbat I+G egitura akreditatu dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen erregistroan.
- UPV/EHUk Euskadi 2020 ZTBP plana hedatzeko hainbat batzordetan parte hartzen du.

7.2.2. Beste erakunde batzuekin lankidetzan, ikerketarako eta transferentziarako egitura eta guneak sortzeko ekimenak bultzatzea eta martxan jartzea.

- UPV/EHU kide duen *KIC AVM: Accelerating Innovation and Business Creation in European Manufacturing* proiektuaren proposamena aurkeztu da Europako Teknologia Institutuan (EIT).
- PAN-EUROPEA EMBRC (European Marine Biological Resource Centre) itsas ikerketarako azpiegituraren Espainiako nodoa eratu da, Vigoko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen itsas estazioek osaturikoa.

- Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan, UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra sortu da.
- Itsas Zientziei buruzko I+G unitate misto bat sortu da Espainiako Ozeanografia Institutuarekin batera Itsas Biologia eta Bioteknologia Esperimentalen Ikerketarako Zentroan, Plentziako Itsas Estazioan (PIE).
- BioAraba Osasun Ikerketarako Institutua sortzeko eta sustatzeko hitzarmena onartu da. UPV/EHU haren kide sortzailea da, Osakidetzarekin eta BIOEF fundazioarekin batera.

### 7.3. UNIBERTSITATE HEDAKUNTZA

#### 7.3.1. ehuGUNE-a finkatzea, unibertsitatearen, erakundeen eta gizarte zibilaren arteko topaleku legez.

- Egindako 27 jardunaldietan, 50 hizlarik parte hartu dute, eta 800 pertsona joan dira.
- UPV/EHUK ordezkariak aktiboa du Eusko Jaurlaritzak sustatuko Bake eta Bizikidetzaren Planaren Batzordean.
- Lankidetzan ari gara ehunberrirekin (Donostia 2016), bakearen inguruan hainbat ekitaldi antolatuzeko.
- ehuGUNEren ziklo bat egin da errefuxiatuei eta Europar Batasuneko krisiari buruz.
- Joan den ekainean, ehuGUNE topaketa bat egin zen Europar Batasuneko 17 enbaxadorekin.

#### 7.3.2. UPV/EHUren irudi korporatibo bakar bat indartzea.

- Ikastegiaren irudi korporatibo berria diseinatu da paper gazetan eta gainerako komunikazio euskarrietan erabiltzeko.

#### 7.3.3. Kultur ekintzak antolatuzeko unibertsitateak bere inguruko kultur erakunde eta eragileekin daukan lankidetzaren zabaltzea.

- Hiru campusak UPV/EHUren Uda Ikastaroak Fundazioan biltzeko eginiko kudeaketa aldaketa finkatu da; horietatik 20 Bizkaian gauzatu dira eta UPV/EHUK Bilbon duen Bizkaia Aretoa eraikinean egiten den kultur jardueraren zati garrantzitsu bat dira.
- Arabako Campusa:
  - Gasteizko hainbat eragileretik lankidetzaren bultzatu da; horren erakusle gisa hainbat hitzarmen sinatu dira Vital Kutxaren Gizarte Ekintzarekin, Artium museoarekin, Montehermoso kulturunearekin, Film Officekin, Eusko Ikaskuntzarekin, Sancho el Sabio Fundazioarekin, eta abarrekin.
- Bizkaiko Campusa:
  - @EHUKultura marka hiru campusetan finkatzeko komunikazio kanpainaren trantsizioa eta garapena.
  - Bizkaia Aretoko instalazioen erabileraren gorakada frogatuta, bai hirugarrenen aldetik, bai UPV/EHUren Bilboko eragileen aldetik, @EHUKultura atarian eginiko berezko kultur jardueren komunikazio kanpainari esker.
  - Lankidetzaren jarduerak Arte Ederren Fakultateko eta Gizarte Zientzietako eta Komunikazioko Fakultateko irakasleekin eta ikasleekin UPV/EHUren Bizkaia

Aretoa eraikinean ekintzak eta erakusketak gauzatzeko; hiriko kultur eragileekiko kooperazioa hainbat ekimenetarako; esaterako, Bilbao Design Week eta abar. Lankidetzan aritu gara Grabatuaren Nazioarteko Azokarekin (FIG), Bilbao Art District artistak sustatzeko erakunde kanpainarekin (Bilboko Udala), hainbat kultur eragilerekin; esaterako, BAT, Zaramari, CFC Bilbao, Caóstica zinema jaialdia, BibaoArte Fundazioa, ZAWP, ZINEBI eta Aiko Taldea.

- Gipuzkoako Campusa:
  - Lankidetzan Donostia 2016rekin campusean hainbat jarduera antolatzen. Horien artean, nabarmentzekoak dira “Babelgo Liburutegia XII” erakusketa eta “Europa bat-batean” jardunaldia, azken hori Bertsozale Elkartearekin elkarlanean.
  - Lehenengo “UNI-bertsoan” ekitaldia Mintzolarekin (Bertsozale Elkarte) eta Mikel Laboa katedrarekin lankidetzan.
  - Casaitaliarekin elkarlana campusean italiararen irakaskuntza ezartzeko; Kresala Zineklubarekin, Emaus Fundazioarekin, campusean tailerrak eta ikastaroak antolatzen, eta abar.
  - Donostiako Orfeoia-UPV/EHU sariaren XV. edizioa egin dugu.
  - UPV/EHUko antzerki taldearen emankizunak.
  - Hainbat jarduera egiteko, lankidetzan jardun dugu Donostia Kulturarekin, Bi Art Elkartearekin eta hainbat GKEekin (DYA, odol emaileak, bidezko merkataritza, Gipuzkoako boluntarioen elkartea, etab.).

#### 7.3.4. UPV/EHUren guneetan kultur ekintzak sustatu eta programatzea.

- Arabako Campusa:
  - Kultura zabalkunderako ekintza multzo bat antolatzea (musika, antzerkia eta zinema), KULTUR CAMPUS programaren barnean.
  - CORTADA JAIALDIAREN XIX. edizioa antolatu da. Dagoneko film laburren erreferente bihurtu da estatuan, Euskal Herrian eta unibertsitatean, eta ikasturte honetan, Espainiako Zinema Akademiak Akademiaren 30. Goya Sarien aurrehautatzaile izateko onartu du.
- Bizkaiko Campusa:
  - Berrogei kultur jarduera baino gehiago egin dira; horien artean konferentziak, erakusketak, kontzertuak, dantza aurkezpenak eta mintegiak. Nabarmentzekoak dira, adibidez, ZINEBILAB UPV/EHU, Dokumental interaktibo tailerra (webdoc) Bilboko Zinema Dokumentalaren Jaialdiarekin lankidetzan (ZINEBI) eta Zeharkako Jardunaldiak: Feminismoak, Artea eta Diskurtso Garaikideak, otsailaren 16tik 26ra Bilbon.
  - Bizkaia Aretoan egindako dantza tradizionalen tailerraren bi txandak finkatu dira, bigarren urtez jarraian; amaiera gisa, TRADEGIN (Tradiziozko Dantza Garaikidea eginez) II. Udako Ikastaroa antolatu zen.
  - Euskal kantu eta ahozketasun tailerra jarri da martxan.
- Gipuzkoako Campusa:
  - Unibertsitate hedakuntzako 18 ikastaro antolatu eta egin ditugu (kultura gunea).
  - Zine klub saioa astero egin da, Zuzenbide Fakultateko Gradu Aretoan. Zine forum saioak frantsesez eman dira. UPV/EHUren Antzerki Gelaren emanaldia.
  - Arkitektura Goi Eskola Teknikoak antolatutako Aste Kulturalean lagundu dugu.
  - Andres Egiuren Orkestra musikari gazteen orkestraren kontzertua.

#### 7.3.5. Unibertsitateko kideen artean kirol jarduerak bultzatzea.

- Unibertsitatekan kanpoko kirol jardueretan parte hartzea:
  - Zabalki, Euskal Pilotaren Nazioarteko Unibertsitate txapelketa Baionan (Frantzia).



- Mugaz Gaindiko I. Jolasak Bordelen.
- Unibertsitate arteko Espainiako txapelketan, 18 kirolelan iritsi ginen azken fasea. Amaierako faseak eta tartekoak kontuan hartuta, 104 kirolarik hartu zuten parte (52 emakume eta 52 gizon), eta 11 domina lortu genituen (emakumeek 8, gizonek 2 eta 1 talde mistoan).
- EAEko kirol jardueretan parte hartzea: Euskadiko Unibertsitate Kiroleko txapelketa: UPV/EHU, Deustu eta Mondragon topaketak. UPV/EHUren izenean 14 kirolelan parte hartu da; zehazkiago, 67 emakumek eta 52 gizonek parte hartu dute.
- Ikastaro eskaintza zabala, erantzun handiarekin:
  - Arabako Campusa: 374 pertsona.
  - Bizkaiko Campusa: 1.830 pertsona.
  - Gipuzkoako Campusa: 660 pertsona.
- Arabako Campusa:
  - Kirol Bidean udal kanpaina sustatu da naturan eginiko jardueren programaren barruan. Hala, bi kanpaina eskaini dira: udazkena-negua eta udaberria-uda.
  - Unibertsitateko kirol lehiaketarekin lotuta, lehenengo hiruhilekoan 33 kirol modalitate eskaini ziren campusean, bai taldekoak, bai banakakoak, eta 1.555 pertsonak eman zuten izena (288 emakume eta 1.267 gizon). Guztira 549 partida antolatu dira.
  - Bigarren hiruhilekoan jarduera puntualak egin dira. Lau eskaini dira eta 472 pertsonak parte hartu dute guztira (98 emakume eta 374 gizon).
  - Zuhatza Abentur izeneko programa berri bat garatu da. Campuseko ikastegi bakoitzeko talde batek hartu du parte.
  - Lankidetzaren hitzarmena Gasteizko Udalarekin, Gaztedi Errugbi klubarekin, 5 gimnasioarekin eta abarrekin.
  - Udal instalazioetarako sarrera libre ematen duten 436 Herritarren Udal txartel (HUT) egin dira; 273 emakumezkoentzat eta 163 gizonezkoentzat.
  - Errendimendu handiko unibertsitate kirolarien ziurtagiriak igorri dira tutoretza plana egin ahal izateko.
- Bizkaiko Campusa:
  - Neguko txapelketan, lehiaketak antolatu dira 19 kirol modalitatetan, eta udaberrikoan, berriz, 24 modalitatetan. Guztira, 817 emakumek eta 2.892 gizonek parte hartu dute.
  - Txapelketa mistoak bultzatu ditugu, saskibaloian eta areto futbolekoan.
  - Jarraipena eman zaio kirol arloko hainbat enpresa eta erakunderekin ezarritako lankidetzari, unibertsitateko kideen artean abantailak sustatuta (Bilbao Kirolak kirol txartela, Club Martiartu txartela eta Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko ikasleei Santurtziko KUIren instalazioak erabiltzeko aukera), Miguel Unamuno Ikastetxe Nagusian zazpiko futboleko barne txapelketa.
  - Ezgaitasuna duten pertsonen kirol egokituko programan parte har dezaten sustatzen jarraitu da, txartelaren eta ikastaroen gastuak ordainduta.
  - I. UPV/EHU trail delakoa egin da eta 375 pertsonak parte hartu dute (129 emakumek eta 246 gizonek).
  - UPV/EHUren X. Lasterketa Mistoa egin da eta 1.048 parte hartzaile izan ditu.
- XIII. Tipi-Tapa Osasunez martxa egin da.
  - Ehutziki umeentzako udalekuak antolatu ditugu.
  - Jarduerak egin dira naturan; zazpi udazkena/neguan eta bost udaberrian, 946 parte-hartzailearekin (389 emakume eta 557 gizon).
- Gipuzkoako Campusa:
  - Neguko eta udaberriko kirol txapelketak antolatu dira, 26 kirol modalitatetan (bakarkakoak nahiz taldekakoak), gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietan eta kategoriatan mistoan. Guztira, 201 taldek eta 2.942 ikaslek parte hartu dute: gizonezkoen kategorian, 2.216k eta emakumezkoenean, 726k.

- III. Estropada Akademikoan lehiatu gara, Deustuko, Nafarroako eta Paue eta Aturriko Herrialdeetako unibertsitateekin, eta lehen postua lortu dugu Sprint modalitateko emakumezkoen kategorian.
- Udaberriko XIV. Lasterketa, unibertsitateko Aerobithona, Fitness Day eta Cyclon Day direlakoak eta abar antolatu ditugu.
- Udaberrian, 11 kirol eta abentura jarduera egin ziren aire zabalean, 396 parte-hartzailerekin (280 emakume eta 116 gizon).
- Instalazioen arloa: Kirol txartelak Eibarko Kiroletako Udal Patronatuarekin: 116 pertsonak eman dute izena (88 gizon eta 28 emakume). Unibertsitateko kideek hilabetean, batez beste, 244 orduz erabili dituzte Gipuzkoako Campusaren kirol instalazioak.



## **8. PROGRAMA. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN UNIBERTSITATEA**

### **8.1. EUSKARA GRADUONDOKOEN ESKAINTZAN**

8.1.1. Tesiak euskaraz egiteko deialdia, urtero egiten dena, egitea eta tesi horien zabalkunderako laguntza ematea.

- 2015-2016 ikasturtean, tesia euskaraz egiteko urteroko deialdia doktorego tesiak egiteko kontratuen deialdi orokorraren barruko modalitate gisa antolatu da, irizpideak bateratzeko helburuz bi modalitateetarako hautagaiak hautatzeko unean.

8.1.2. Ikasleak euskara hutsez eskainiko diren master ofizialetan matrikula daitezen bultzatzea, bai eta euskararen presentzia nabarmena bermatzen dutenetan ere, eta master guztietan euskarazko irakasgaiak txertatzen joatea.

- Abokatutza Masterra oso-osorik euskaraz eskaini da.
- Euskaraz eskainitako kreditu kopurua nabarmen handitu da 2014-2015 ikasturteari dagokionez, bereziki lanbidean aritzeko gaitzen duten masterrei dagokienez; hala, 2014-2015 ikasturteko 531 kreditutatik 922 kreditura pasa da 2015-2016 ikasturtean.

8.1.3. Laguntza ematea graduondoko berezko tituluak euskaraz emateko.

- Jarraipena eman zaie UEUrekin ditugun akordioei. Graduondoko berezko titulu berri bat eman da euskaraz (Mendizaletasuna: mendi jardueren ikasketak).

8.1.4. Laguntza ematea master amaierako lanak euskaraz egiteko.

- Master arduradunei jakinarazi zaie euskara dakiten epaimahaiak antolatu behar dituztela master amaierako lanak euskaraz egin nahi dituzten ikasleentzat.

8.1.5. Euskarazko argitalpen akademikoen eskaintza handitzea.

- Sei irakaskuntza eskuliburu itzuli ditugu, eta inprimatutako 8 eskuliburu eta formatu elektronikoko 18 unibertsitate testu argitaratzea sustatu dugu. Aurretiaz argitaratutako obren berrargitalpen elektronikoa ere sustatu dugu.
- Inprimatutako 19 liburu eta hiru aldizkaritako 5 ale argitaratzen lagundu dugu. Ildo horretatik, euskararen presentzia sutatu da argitalpen sail batzuetan.

### **8.2. EUSKARA, ZIENTZIAREN ETA KULTURAREN ALORREAN**

8.2.1. Euskarazko argitalpen akademikoen eskaintza handitzea.

- Aurten ere egin da material akademikoak euskaraz argitaratzeko urteko deialdia.
- Ikastegi guztietan UPV/EHUren argitalpen eskaintza hedatzeko erakusleihoak jar daitezen sustatu da.

8.2.2. Euskararen presentzia indartzea unibertsitatearen udako ikastaroen eskaintzetan.

- Euskararen presentzia indartu dugu diru laguntzen eta laguntzen bidez, zein Udako Ikastaroak programan euskarazko ikastaroen publizitatea eginda.
- Zehazki, "Euskararekiko gizarte erantzukizuna akademiaren eta gizartearen kultura aldatetan" ikastaroa sustatu da.

8.2.3. Gure unibertsitatearen euskarazko argitalpenen presentzia sustatzea euskara erabiltzen duten gainerako unibertsitateetan.

- Euskarazko argitalpen guztiak sistematikoki bidaltzen jarraitu dugu euskara erabiltzen duten gainerako unibertsitateetara (Baionakora, Deustukora, Mondragonekora...).

8.2.4. Laguntza ematea euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatuko duten ekitaldiak antolatzeko.

- EHUskaralariak deialdia egin da euskararen erabilera sustatzeko unibertsitateko kideen artean, besteak beste ikasleen artean, IRIen artean eta AZPko langileen artean.
- Euskararen Eguna ospatu da hiru campusetan, euskara sustatzeko hainbat ekitaldiren eta jardueraren bidez.
- Arabako Campusean EHUskARABANda ospatu da eta horren baitan hainbat jarduera egin dira 2015eko irailtik abendurako tartean; besteak beste, testuen kalitatea hobetzeko tailerrak, euskarazko wikipedia sustatzekoak, euskal wikipedia elikatzeko topaketak, gizarte jardueretan euskararen erabilera sustatzekoak, euskarazko film laburren lehiaketa bat, filmen emanaldiak (*Amama* eta *Loreak*), eta dantza tailer bat.
- Mintzanet plataforma aurkeztu da hiru campusetan.

### **8.3. EUSKARA INSTITUTUAREN EKIMENAK INDARTZEA**

8.3.1. Hiztegiak, corpusak eta euskararen gramatika garatzea sarean.

- Institutuari babesa eman diogu, aurreko urteetako ildoetara jarraituta.

### **8.4. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN NAHIZ AZPKO LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA HOBETZEA**

8.4.1. Ikastaroak eskaintzea, IVAPekin elkarlanean.

- 2015-2016 ikasturtean, bi ikastaro deialdi egin ditugu IVAPekin elkarlanean.

8.4.2. AZPko langileek euskara ikasteko liberazioen programa eskaintzen jarraitzea.

- IVAPek eta UPV/EHUK sinaturiko hitzarmenaren bitartez, 2015-2016 ikasturtean liberazioen programarekin jarraitu da:

#### 8.4.3. Euskara hobetzeko ikastaroen deialdia egitea.

- Euskara Zerbitzuak 5 ikastaro birtual eta aurrez aurreko 2 ikastaro antolatu ditu. Ikastaro horiek, batik bat, irakasle eta ikertzaileei eskaintzen zaizkie, baina AZPko langileei ere aukera ematen zaie. Honako online ikastaro hauek eskaini dira: Unibertsitateko testuak zuzentzen: ohiko zuzenketak; Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak (EIMA); Euskaltzaindiaren araugintza berria; Interneteko hizkuntza baliabideak eta Euskara Zerbitzuarenak, eta Testu akademikoak itzultzen trebatzeko lantegia. Honako hauek izan dira aurrez aurreko ikastaroak: "Esaldiaren antolaera funtzio informatiboak gako", eta "Testua josten".
- AZPko langileei espresuki zuzendutako hobetzeko bi ikastaro eskaini ditugu Leioan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen: "Mintzapraktika maila aurreratua" eta "Mintzapraktika goi maila".
- Gainera, Terminologia Sareak Ehunduz egitasmoarekin jarraitu dugu (tsE, 23 tailer), eta bultzada eman zaie plataformari digitalei.

#### 8.4.4. Irakasle-ikertzaileek euskara ikasteko egiten dituzten ikastaroak finantzatzeko deialdia egitea, irakaskuntza lana bi hizkuntzetan betetzeko gai izan daitezen.

- 2015-2016 ikasturtean, euskarazko ikastaroak diruz laguntzeko deialdi bat egin dugu.

### 8.5. ELEANIZTASUNA

#### 8.5.1. Irakasle eta ikertzaileei nahiz AZPko langileei zuzendutako hizkuntza ikastaroen eskaintza bermatu eta indartzea.

- Irakasleei eskainitako hainbat ikastaro egin ditugu, ingeles hizkuntza eta trebetasunak hobetzeko, nola unibertsitateko testuinguruan, hala irakaskuntza tresna gisa:
  - Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Leioan, "Improving English-Medium Communication and Instruction Skills at Level B2+" izeneko 30 orduko 4 ikastaro antolatu ditugu, eta orotara, 53 pertsonak parte hartu dute (31 emakume eta 22 gizon). Donostian eta Bilbon "Improving English-Medium Communication and Instruction Skills at Level B2+" izeneko 25 orduko bi ikastaro trinko eskaini ditugu, eta orotara, 25 pertsonak parte hartu dute (13 emakume eta 12 gizon).
  - Era berean, "Improving Pronunciation for University Teaching and Other Activities" izeneko 10 orduko 2 ikastaro antolatu ditugu, B2 maila duten irakasleentzat. Zehazki, Gasteizen eta Leioan egin ditugu, eta aurreko ikasturtean Bilbon eta Donostian egindako eskaintzaren osagarri izan dira. Guztira 27 irakaslek parte hartu dute (16 emakume eta 11 gizon).
  - Era berean, "Improving Writing Skills for University Teachers and Researchers" izeneko bi ikastaro eskaini dizkiegu ingelesezko dokumentu idatzietan (izan ikerketa arloarekin lotutakoak, izan unibertsitatearekin zerikusia duten bes-telako jardueri buruzkoak) ekoizpen lan eraginkorragoa lortu nahi duten irakasle eta ikertzaileei. Aurreko ikasturtean Leioan egin zenez, oraingoan Bilbon eta Donostian antolatu da, eta 28 pertsonak parte hartu dute (18 emakume eta 10 gizon).
  - Lehenengo aldiz eskaini da "Improving Presentation Skills for University Teachers and Researchers" ikastaroa, ingelesezko aurkezpenak egiteko gaitasunak hobetu nahi dituzten irakasle eta ikertzaileei zuzendurikoa. Leioan egin da eta 15 pertsonak parte hartu dute (9 emakume eta 6 gizon).

- Campuseko errektoreordetzetatik egindako eskaintzak hizpide hartuta, hauek izan dira datuak:
  - Arabako Campusean jarraian zehaztuko ditugun ikastaroak eta mintegiak antolatu ditugu, ikasleentzat, irakasleentzat zein AZPko langileentzat. Lauhileko bakoitzeko lau lantegi eskaini dira: "General English in use I and II", B1/B2 mailarekin; "Listening and speaking", B2 mailakoa, eta "Reading and writing", B2 mailakoa. Horretaz gain, beste ikastaro hauek eskaini ditugu: "How to use the INTERNET effectively in your English language learning process" eta "English as a lingua Franca (ELF) phonology sessions". Bestetik, unibertsitateko kide guztiei 28 toki eskaintzen jarraitzen dugu **Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Multimedia Laborategian**, hizkuntza modernoak modu interaktiboan ikasteko programa aurreratuenekin eta tutore baten laguntza pedagogiko eta linguistikoarekin. Azkenik, bigarren lauhilekoan, C1 mailako TOPTULTE ingeles azterketa prestatzeko ikastaro trinko bat eskaini dugu, soil-soilik irakasle eta ikertzaileentzat.
  - Bizkaiko Campusean, ingeles, frantses, aleman, italiara eta txinera ikastaroen eskaintzarekin jarraitu dugu, honako hauen lankidetzarekin: Hizkuntza Laborategia, Frantziako Institutua, Goethe Institutua, Casaitalia eta Lu Xun txinera Ikasketen Zentroa. Aurrekoarekin batera, "Ingeles tekniko orokorreko ikastaro" bat eta "Elkarrizketa eta ahozko adierazpen ikastaro" bat antolatu ditugu, biak ala biak 25 ordukoak.
  - Gipuzkoako Campusean hiru programa eskaini dira, ingelesezkoa, frantsesezkoa eta alemanezkoa, irakasle eta ikertzaileei zein AZPko langileei zuzenduta. Gainera, "C1 mailako azterketak prestatzeko" ikastaroko bi talde eta "B2 mailako azterketa prestatzeko" ikastaroko beste bi izan dira. Era berean, aleman, frantses eta italieraren hastapenentarako ikastaroak eskaintzen jarraitu dugu; Goethe Institutuarekin, Frantziako Campusarekin eta Casaitaliarekin lankidetzan, hurrenez hurren. Bestalde, ingelesezko jarduera osagarriak antolatu ditugu: bi astean behineko irakurketa elkarte bat, hizkuntza laguntzarako saioak, fonologia saioak eta idazketa saioak; bai eta txango soziokulturalak asteburuentarako eta blog bat ere. Azkenik, C1 mailako "TOPTULTE ingeles azterketa prestatzeko ikastaro trinko" bat antolatu dugu irakasle eta ikertzaileentzat, bai eta "Nazioarteko Biltzarretarako ingeles ikastaro" bat ere, aurrez aurreko 40 eskola ordukoa.
- Nabarmentzekoa da, halaber, CERTIUNI Ziurtapen Plataformaren bitartez, ikasleei BULAts azterketa egiteko aukera eman zaiela: online egin beharreko test bat, Europako Unibertsitate Eremu berrian gehien eskatutako gaitasun batzuk egiaztatzen dituen ziurtagiria lortzeko balio duena.

#### 8.5.2. Ofizialak ez diren hizkuntzetan eskainitako irakasgai blokeak handitzea.

- Eleaniztasun Planeko hizkuntza ez ofizialetan emandako irakasgai kopurua 288tik 293ra igotzeaz gainera, 2014-2015 ikasturteko 6 modulu edo irakasgai bloketatik 27ra igaro gara aurtengo ikasturtean, ikastegiek beraiek graduentarako planteaturiko eskaintza koherenteago baten lanketari esker.

#### 8.5.3. Ofizialak ez diren hizkuntzetan eskainitako irakasgaiak emateko gai diren irakasle eta ikertzaile akreditatuen kopurua handitzea.

- 2014-2015eko 1.006 irakasle akreditatuetatik (% 47 emakumeak eta % 53 gizonak) 1.080ra igaro gara 2015-2016 ikasturtean (% 47,8 emakumeak eta % 52,2 gizonak).

## 9. PROGRAMA. MUNDURA IREKITAKO UNIBERTSITATEA

### 9.1. PERTSONA TALENTUDUNAK ERAKARTZEA ETA HAIEN LEIALTASUNA LORTZEA

9.1.1. Ikasle eta ikertzaile bisitarien harrerarako zerbitzua finkatzea bisitaldiaren aurretik eta ondoren jarraipena eginez, gure unibertsitatearekiko loturak bizirik iraun dezan.

- Hiru campusetan, 2015-2016 ikasturtean zehar, 1.223 kontsulta artatu dira Harrera Bulegoetan (% 59 emakumeenak eta % 41 gizonezkoenak); 863 abuztua-irailean (% 60 emakumeak, % 40 gizonak), eta 360 urtarrilean (% 57 emakumeak, % 43 gizonak). Harrera Bulegoek ingelesez egiten den informazio eskaera kontzentratzen dute, eta ezinbesteko errefortzu lana egiten dute ostatu zerbitzuentzat. Gainera, gaztelania eta euskara ikastaroei buruzko informazioa ematen diete nazioarteko bisitariari, bai eta haien eskura dauden campus zerbitzuei buruzko informazioa ere (kirol eta kultur jarduerak); bertako eskoletan ingelesezko elkarriketarako laguntzaile gisa aritzeko eskaerak izapidetzen dituzte, eta aholkuak ematen dizkiete campuseko gune publiko eta liburutegien erabilerari buruz.

9.1.2. Ikasle bisitariak hartzeko Buddy programa finkatzea.

- 2011z geroztik, nazioarteko bisitariari laguntzeko Buddy programa kudeatzen dugu tresna hori ez duten ikastegientzat. 2015eko irailean 185 ikaslek eman zuten izena programa horretan (% 70 emakumeak, % 30 gizonak), eta 123k 2016eko urtarrilean (% 65 emakumeak, % 35 gizonak); hortaz, guztira 308 *buddie* daude (% 68 emakumeak, % 22 gizonak). Nabarmentzekoa da dagoeneko 8 ikastegik dutela beren Buddy programa.

9.1.3. Harrerako eta orientazioko saioak antolatzea ikasle bisitariarentzat.

- Ikasturtearen hasieran, bisitariarentzako harrera ekitaldiak antolatzen ditugu campus bakoitzean. Horretaz gain, bisita gidatuak egin dira hiru campusetan nazioarteko bisitariak iritsitakoan.
- Maiatzean izan zen nazioarteko bisitariak agurtzeko ekitaldia; bertan hiru campusetako 150 ikasle inguru izan ziren.

9.1.4. Atzerriko ikasleak erakartzeko deialdiak eta programak gestionatzea.

- 2015-2016 ikasturtean zehar, UPV/EHUk 932 ikasle jaso ditu guztira (% 59 emakumeak, % 41 gizonak) honako programa hauen esparruan: Erasmus+ (590 ikasle, % 60 emakumeak, % 40 gizonak), Erasmus Mundus (9 ikasle, % 33 emakumeak, % 66 gizonak), Latinoamerika (270 ikasle, % 59 emakumeak, % 41 gizonak) eta Beste norako batzuk (63 ikasle, % 55 emakumeak, % 45 gizonak).
- Era berean, "2015-2016 ikasturtean UPV/EHUko unibertsitate masterrak egiteko laguntzen deialdia" argitaratu dugu (ikus 5.1.7. puntua).
- Eta 2015-2016 ikasturtean, bi deialdi egin ditugu UPV/EHUko doktorego ikasketetan matrikulatuta eta prestakuntza bidean dauden Latinoamerikako ikertzaileei UPV/EHUko egonaldietan laguntzeko. Bederatzi laguntza eman ditugu lehenengo deialdian; bigarrenean, berriz, 11.

- Prestakuntza bidean dauden UPV/EHUko ikertzaileak atzerriko unibertsitateetan egonaldiak egin ditzaten laguntza deialdia egin dugu, bai eta prestakuntza bidean dauden atzerriko unibertsitateetako ikertzaileek UPV/EHU egonaldiak egiteko ere, tutorekidetzan doktore tesiak egin ditzaten (ikus 5.3.4 puntua).

#### 9.1.5. Atzerriko irakasleak eta ikertzaileak eta AZPko langileak erakartzea, atzerriko unibertsitateetara haiek erakartzeko asmoz doazen gure langileak prestatuz.

- Prestakuntza saioak antolatu ditugu ERASMUS AZP-II mugikortasun programetan parte hartzen duten pertsonentzat, UPV/EHUren enbaxadore lanak egin eta sustapen, informazio eta erakunde material bakar bat erabil dezaten edozein tokitara joaten direla ere.
- 2015-2016 ikasturtean zehar, UPV/EHUk 96 irakasle eta ikertzaile eta AZPko langile jaso ditu Erasmus+, Latinoamerika eta Beste norako batzuk programen barruan (% 61 emakumeak eta % 39 gizonak).

#### 9.1.6. Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak eta lortutako maila egiaztatu nahi duten bisitariarentzako azterketak gestionatzea.

- Hiru campusetan, Gaztelania eta Espainiar Kulturari buruzko ikastaroak antolatu ditugu, bisitariarentzat, hiru mailatan: oinarrizkoa, ertaina eta goi mailakoa. Orotara, 704 ikasle parte hartu dute ikastaro horietan (% 64 emakumeak, % 36 gizonak). Era berean, Euskara eta Euskal Kulturaren hastapeneko hiru ikastaro antolatu ditugu Arabako eta Gipuzkoako campusetan; 96 ikasle parte hartu dute (% 62,5 emakumeak, % 37,5 gizonak).
- DELE azterketaren (Gaztelania Atzerriko Hizkuntza Gisa) bi deialdi kudeatu ditugu, Europako esparru bateratura egokitutako B1-etik C1-erako mailetan (2015eko azaroko deialdia eta 2016eko apirilakoa) eta 26 ikasle eman dute izena guztira (% 77 emakumeak eta % 23 gizonak).
- Irakasleentzako bi ELE Prestakuntza Ikastaro (Español Como Lengua Extranjera) antolatu eta egiaztatu ditugu, Cervantes Institutuarekin elkarlanean: "Cómo ser Profesor de ELE" (40 pertsona, % 79 emakumeak eta % 21 gizonak) eta "Desarrollo de competencias y revisión de enfoques para la enseñanza de ELE" (28 pertsona, % 54 emakumeak eta % 46 gizonak).
- Etxepare Institutuarekin lankidetzan, bestalde, "Atzerriko unibertsitateetan eta goi mailako ikastegietan euskara irakasteko prestakuntza ikastaro bat" eman dugu, eta 32 pertsonak parte hartu dute (% 69 emakumeak; % 32 gizonak).

## 9.2. NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA ETA TRUKEA

### 9.2.1. Graduoko eta graduondoko ikasleek beste unibertsitate batzuetan ikasi edo praktikak egin ditzaten mugikortasun programak zabaltea eta gestionatzea.

- 2015-2016 ikasturtean zehar, UPV/EHUko graduoko 1.344 ikasle (% 60 emakumeak, % 40 gizonak) joan dira beste unibertsitate batzuetara Erasmus+ (1.006 ikasle, % 58 emakumeak, % 42 gizonak), Erasmus Mundus (2 ikasle, emakumeak), Latinoamerika (264 ikasle, % 67 emakumeak, % 33 gizonak) eta Beste norako batzuk (79 ikasle, % 69 emakumeak, % 31 gizonak) programen esparruan.
- Gainera, graduondoko 84 ikasle egonaldi bat egin dute beste unibertsitate batean (% 48 emakumeak, % 52 gizonak) Erasmus+ (80 ikasle, % 50 emakumeak, % 50



gizonak), Latinoamerika (ikasle 1, gizona) eta Erasmus Mundus (3 ikasle, gizonak) programen esparruan.

- Hainbat unibertsitatek eskatutako hizkuntza egiaztagiria lortzen laguntzeko helburuarekin, CERTIUNiren bitartez, ingelesezko BULAts azterketa egitea kudeatu dugu, bi deialditan (2015eko azaroa eta 2016ko martxoa) eta 75 ikasle aurkeztu dira (% 61 emakumeak, % 39 gizonak).

9.2.2. Study Abroad eta udako ikastaroak antolatzea lotura iraunkorrak ezarri nahi diren unibertsitateetako ikasleentzat, lehentasuna emanda euskal diasporakoei.

- Basque Yourself ikastaroa diseinatu da Etxepare Institutuarekin lankidetzan.

9.2.3. Irakasle-ikertzaileentzako eta AZPkoentzako mugikortasun programen zabalkundea eta gestioa bultzatzea.

- Erasmus+ programaren barruan, 62 pertsonak (% 47 emakumeak; % 53 gizonak) izan dute Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitate batera joateko aukera; horien artean irakasle eta ikertzaileen taldeko pertsonak (47 pertsona, % 38 emakumeak eta % 62 gizonak) zein AZPko langileen (15 pertsona, % 27 emakumeak, % 73 gizonak) taldekoak izan dira. Gainera, Errektoreordetzaren mugikortasun deialdiaren bitartez, 13 pertsonak (% 62 emakumeak, % 38 gizonak) mugikortasun beka bat izan dute.

9.2.4. Staff Week-a antolatzea unibertsitate bazkideekin.

- Bigarren "Langileentzako Prestakuntza Astea" antolatu dugu (Staff Training Week-STW) ikasleen eta langileen nazioarteko mugikortasunari buruzko gaiak lantzeko, eta Bordeleko Unibertsitatea izan dugu gonbidatu berezi gisa. Jardunaldi horietan, 31 unibertsitateetako 33 ordezkariak (% 91 emakumeak, % 9 gizonak) parte hartu dute. Parte-hartzaileak Marokotik eta Europako honako unibertsitate hauek etorri dira: Italia, Erresuma Batua, Kroazia, Irlanda, Austria, Eslovakia, txekiar Errepublikak, Lituania, Estonia, Frantzia, Belgika, Herbehereak, Portugal, Hungaria, Alemania, Polonia eta Georgia.

9.2.5. Latinoamerikako, Asiako, Europako, Estatu Batuetako, Australiako eta Kanadako unibertsitateekin lankidetzan jarduteko sareak handitzea.

- Lankidetzarako 17 oinarritzko hitzarmen sinatu ditugu goi mailako hainbat unibertsitate eta erakunderekin. Toki hauetakoak dira, hain zuzen: Ipar Amerika (2), Latinoamerika (14) eta Asia (1).
- Eta mugikortasunerako 17 hitzarmen espezifiko sinatu ditugu toki hauetako unibertsitateekin: Latinoamerika (13), Ipar Amerika (2) eta Asia (3).

9.2.6. Atzerriko unibertsitateekin batera titulazio bikoitzak ezartzeko ekimenak bultzatzea.

- Graduak titulazio bikoitzeko hitzarmen bat sinatu da Alemaniako University of Applied Sciences Mittweida delakoarekin.
- Unibertsitate Masterreko titulazio bikoitzeko lau hitzarmen sinatu ditugu; bi Bordeleko Unibertsitatearekin, beste bat École Supérieure des Technologies Industrielles Avancées delakoarekin, eta laugarrena, Université Catholique de



Louvain-La Neuve (Belgika) eta Les Facultés Universitaires Notre-Dame de la Paix (Belgika) unibertsitateekin. Gainera, titulazio bikoitzeko hitzarmen baten izapidetze prozesua amaitu da Bordeleko Unibertsitatearekin.

### **9.3. NAZIOARTEKO SAREAK ETA NAZIOARTEKO BESTELAKO ITUNAK ETA ELKARLANA**

#### **9.3.1. Nazioarteko unibertsitate sareetan parte hartzea finkatzea.**

- Lau ikasle bidali dira (% 50 emakumeak, % 50 gizonak) Ipar Ameriketako CONAHEC sarearen bitartez, eta 10 jaso ditugu (% 90 emakumeak, % 10 gizonak).
- Ikasle 1 jaso dugu CREPUQ (Conférence des recteurs et des principaux des universités du Québec) sarearen bitartez.
- Brasilgo Gobernuak finantzatzen duen Mugarik Gabeko Zientzia programan, UPV/EHU hautatua izan da herrialde horretako ikasleak hartzeko. Ondorioz, Brasilgo 40 ikaslek (% 62,5 emakumeak; % 37,5 gizonak) gure unibertsitatean ikasi dute.
- Compostela Taldearen Administrazio eta Zerbitzuetako langileentzako Stella mugikortasun programaren barruan, pertsona bat jaso dugu AEBtik eta beste bat bidali dugu hara.
- Pyren programaren esparruan eta Paue eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin (UPPA) lankidetzan, UPPAko 16 irakasle eta ikertzaile eta AZPko langile izan ditugu (% 81,25 emakumeak eta % 18,76 gizonak) bi egunez Gipuzkoako Campusean.

#### **9.3.2. Euskal ikasketen departamenduak dituzten erakundeekin ezarritako loturak finkatzea.**

- Euskal Diaspora Akademikoari buruzko I. Sinposioa antolatu da, mundu osoan zehar barreiatu euskal jatorriko edo Euskal Herriarekin lotura duten akademikoekin eta ikerlarien nazioarteko sare bat sortzeko oinarriak ezartzeko helburuz. Sinposioan, AEBko 6 unibertsitateetako hizlariak parte hartu dute.

#### **9.3.3. Erasmus+ programako (kanpo utzita KA1-movilidad) deialdietara proposamenak aurkezteko prozesurako laguntza ematea.**

- Webgunean eguneratuta izan dugu Europako deialdiei buruzko informazioa, eta interesatuta egon litezkeen pertsonen horiei buruzko informazioa bidali diegu. Bestalde, deialdiei buruzko informazio eskaera guztiei erantzun diegu.
- 2015-2016 ikasturtean, hiru Erasmus Mundus mugikortasun programa kudeatu ditugu: a) BACKIS, Armenia, Azerbaijan, Ukraina eta Georgiarekin; b) ACTIVE, Bielorrusia, Moldavia, Ukraina, Georgia eta Armeniarekin, eta c) PHANTER, Australia eta Zeelanda Berriarekin.

#### **9.3.4. Gestio eredu bat diseinatzea irakaskuntzaren arloko euskal komunitatearekin harremanak hobetzeko.**

- Uztailaren 17an eginiko Euskal Diaspora Akademikoari buruzko Sinposioan (ikus 9.3.2. puntua), ibilbide orri bat trazatu zen irakaskuntzaren arloko euskal komunitatearekiko harremana hobetzeko.

#### **9.4. EURO-ESKUALDEKO UNIBERTSITATEA**

9.4.1. Akitania-Euskadi-Nafarroa sarean daukagun presentzia eta parte hartzea finkatzea.

- Akitania-Euskadi-Nafarroa ingurunean zeharkako tailer bateratu bat diseinatu dugu, sareko unibertsitateko kideei irekia: Kimika Berdeari buruzko mugaz gaindiko tailerra.

#### **9.5. EGITURAK ETA ZERBITZUAK EGOKITZEA**

9.5.1. GAUR aplikazioaren nazioarteko harremanen arloa mugikortasun programen gestioko premietarako egokitzea.

- Beharrezko egokitzapenak egin dira GAUR plataformako Nazioarteko Harremanen atalean, haren bitartez ikasle bisitarien eta masterreko ikasleen mugikortasuna kudeatu ahal izateko.

## 10. PROGRAMA. UNIBERTSITATE KONPROMETITUA ETA ARDURATSUA

### 10.1. JASANGARRITASUNERAKO, BERDINTASUNERAKO ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

#### 10.1.1. UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planean zehaztutako jarduerak ezartzea.

- 2014ko abenduaren 18ko UPV/EHUren Gobernu Kontseiluan aho batez onartutako UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen arteko II. Berdintasun Planaren (2014-2017) diseinua amaituta, bertan bildutako 87 ekintzak egikaritzen jarraitzen dugu: guztira 52 gauzatu dira eta 18 gauzatze fasean daude.
- AKADEME, UPV/EHUko emakume akademikoen lidergorako programa diseinatu eta ezarri da, eta guztira, hiru campusetako 42 emakume akademikok parte hartu dute.
- Ikertzaileentzako II. Idazketa Astea antolatu dugu Gipuzkoako Campusean (2016ko uztaila), eta 16 emakume ikerlarik parte hartu dute.
- Plantillan duten presentziarekin alderatuta emakumezko ikertzaile nagusi gutxiago egotea eragiten duten faktoreak identifikatzeko azterlan bat egiten ari gara.

#### 10.1.2. AZPkoei eta irakasle eta ikertzaileei berdintasunaren arloan eskainitako prestakuntza sendotzea eta eskaintza zabaltzea.

- AZPko langileen prestakuntza: 6 ikastaro (guztien artean 66 ordu), 78 pertsonaren parte hartzearekin (% 87,18 emakumeak).
- Irakasle eta ikertzaileen prestakuntza (berdintasunaren eta dibertsitate afektibo sexualaren arloetako ikastaroak): 3 ikastaro (guztien artean 37 ordu), 66 pertsonaren parte hartzearekin (% 89,39 emakumeak).
- Ikerketa metodologia feministari buruzko ikastaroa: Diskurtsoaren azterketa kritikoa ikuspegi feministatik (1 ECTS kreditu). Hiru campusetan eskaini da eta irakasle eta ikertzaileen, doktoregoko ikasleen eta AZPko langileen taldeko 61 pertsonak parte hartu dute (% 68,85 emakumeak).

#### 10.1.3. Aurrera egitea UPV/EHUren aurrekontuetan generoaren ikuspegia sartzeko bidean.

- 2012, 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldietako I. Kapituluako gastuen likidazioaren analisia egin dugu, datuak sexuen arabera bereizita.
- UPV/EHUren aurrekontu analisian genero ikuspegia txertatzeari buruzko bi txosten amaitu ditugu: bata aurrekontuaren I. kapituluaren analisiari buruzkoa: *Genero ikuspegiko aurrekontuak UPV/EHU: 1- I. Kapituluaren analisia (2013)*, eta, bestea: *2- Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren gastuaren analisia (2013-2014 ekitaldia)*, UPV/EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren partida garrantzitsuenen analisia biltzen duena. Dokumentuok, gainera, zabaldu eta eskuragarri jarri dira (webgunea, jardunaldiak, informazio instituzionala, AZPko langileen-tzako prestakuntza).

- 10.1.4. Txostenak egiten hasia UPV/EHUko arautegiak generoaren ikuspegitik aztertzeke.
- Esperientzia pilotu gisa genero eraginari buruzko txosten bat egin da, *Ekitaldi ospetsuen, ohoreen eta protokoloen araudiarekin* lotuta.
- 10.1.5. Berdintasuneko hezkuntzaren instituzionalizazioa finkatzea.
- Genero ikuspegia duten irakaskuntza liburuen sorkuntza bultzatzen da.
- 10.1.6. Berdintasunerako Zuzendaritzaren webgunea eguneratzea eta hobetzea.
- Web orria hobetzen jarraitu dugu, funtzionala izan dadin, nola kontsultarako, hala UPV/EHU barnean zein kanpoan gaiarekin lotuta gertatzen diren ekimenei, albisteei, argitalpenei, sariei eta abarri buruzko informazioa emateko.
- 10.1.7. Jasangarritasun txostena hobetzea partaidetza prozesu baten bitartez, eta hedadura hobetzea.
- Webgunean argitaraturiko Jasangarritasun txostena egunean dugu. Memoria horrek Iraunkortasun Bulegotik sustatutako lan ildo nagusiak biltzen ditu.
- 10.1.8. Aurrera egitea erakundearen "Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa" ezartzeko jasangarritasunerako metodologia moduan.
- Segimendua eta babes eskaintzea beren irakaskuntza lanean Zerbitzu Ikaskuntza metodologia aplikatu nahi duten irakasleei.
- 10.1.9. Egiten ari den lana erakustea eta AZPko langileen, irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen arteko komunikazioa hobetzea jasangarritasunarekin lotutako gaietan.
- Gizarte Erantzukizunari buruzko webgunea hobetu da eta egitura funtzionalagoa eman zaio, bai kontsultak egiteko garaian, bai informazioa eskaintzean ere; hala, unibertsitateko kideekin garaturiko lan jardunaldietan sorturiko materialak hedatzeko plataforma erabilgarria izan dadin lortu da.
  - 2016ko uztailean, "Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (2016)" mintegia egin zen Bilbon, irakasle eta ikertzaileei zuzendua, eta 30 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten (% 66,6 emakumeak; % 33,4 gizonak).
  - Jasangarritasunaren arloko berrikuntzarako laguntzen deialdiaren (2015) bigarren edizioa esleitu dugu (campusa, laborategi gisa). Hainbat gairi buruzko 11 proiektu finantzatu ditugu; esaterako, gizarte eta hezkuntzaren arloko erronkak eta gizarte parte hartzea, erosketa berdea, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa eta energia eraginkortasuna hobetzeko estrategiak. Horietan guztietan, unibertsitateko kideek parte hartu dute.
  - UE4SD (University Educator for Sustainable Development) proiektuaren azken fasea. Gloucestershireko Unibertsitateak gidatutako proiektua da, eta Europako 33 herrialdeetako 52 unibertsitatek parte hartzen dute. UPV/EHU hautatua izan da, estatuko beste 3 unibertsitatearekin batera, proiektuarekin loturiko eta bere baitan garaturiko ekintzak aurkezteko.

#### 10.1.10. Solidaritate jardueren programa finkatzea unibertsitateko curriculumean.

- 174 ikaslek lortu dituzte kredituak elkartasun jarduerak egiteagatik (% 33,3 gizonak eta % 66,7 emakumeak).
- Bi hitzarmen berri sinatu dira gizarte erakundeekin jarduera mota hori errazteko. Gaur egun, UPV/EHUk 38 hitzarmen ditu sinatuta gizarte erakundeekin.
- Medikuntzako ikasleen Boluntariotza Programa Autokudeatua indartu dugu. Programa horrek Bilboko Irakasleen Eskolako ikasleentzako lehen laguntzei buruzko prestakuntza jardunaldiak antolatu eta eman ditu, hirugarren urtez jarraian. (43 ikasle, % 94 emakumeak).
- II. Boluntariotza Azoka antolatu dugu, Ikasleen Kontseiluaren eta Boluntariotza Bulegoen laguntzarekin: Bolunta (Bizkaia), Gizalde (Gipuzkoa) eta Sartu (Araba). Unibertsitateko hiru campusetan, 80tik gora gizarte erakundeek parte hartu dute, eta gai horri buruzko hogeitailer, hitzaldi eta erakusketa inguru egin ditugu, Bizkaiko, Gipuzkoako zein Arabako ikastegietan.

#### 10.1.11. Unibertsitateko kideak berdintasunaren arloan sentsibilizatzea.

- Hiru jardunaldi egin dira, bat campus bakoitzeko, genero ikuspegiarekin eginiko UPV/EHUko Gradu Amaierako Lanak ikusgarri egiteko; 150 parte hartzaile izan zituzten (% 78,67 emakumeak), eta guztira 45 lan egin ziren ikusgarri (% 84,45 emakumeek eginak). Gainera, generoaren azterketen arloan jakintzaren esparru defizitarioetan ere ordezkari izan zen; esaterako zientzietan, ingeniarietan eta arkitekturan.
- Martxoaren 8ko jardunaldi instituzionala, azaroaren 25eko jarduerak eta Beldur Barik! kanpainarekiko lankidetzaren indartu ditugu, unibertsitateko hiru kolektiboek parte hartzearekin –AZPko kideak, irakasle zein ikertzaileak, eta ikasleak–. 2015.
- Mira el otro lado (#miraelotrolado) publizitate kanpaina egin eta finantzatu da, hizkera inklusibo eta ez sexista erabiltzea sustatzeko. Kanpaina Publizitateko eta Harreman Publikoetako graduako Arte Zuzendaritzako ikasleek egin zuten eta UPV/EHUren martxoaren 8ko jardunaldi akademiko instituzionalean aurkeztu zen, Bizkaiko Campusean.
- UPV/EHUen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko hitzaldiak eta jardunaldiak antolatzeke laguntzen deialdiak 2015-2016: 3.322 bertaratu, irakasle eta ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen artean (% 73,45 emakumeak).
- Jardunaldietan, kongresuetan eta mintegietan parte hartzeke laguntzen deialdia, ikasketa feministei, generokoei eta dibertsitate afektibo sexualekoei buruzko komunikazioak aurkezten dituzten doktorego ikasleentzat. Horien bitartez, doktoregoko 17 ikasleri emango zaizkie beka (% 64,71 emakumeak).
- Genero ikuspegia duten eta dibertsitate afektibo sexualari buruzko Master Amaierako Lanak egiteke laguntzen deialdia. Horren bitartez, beka eman diegu 16 ikasleri (% 93,75 emakumeak).
- Honako sari hauek eman ditugu: UPV/EHUko gradu amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeko Francisca de Aculodi Saria (2. edizioa), UPV/EHUko master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeko Maria Goiri Saria (4. edizioa), eta azterlan feministei edo genero azterlanei buruzko tesirik onenari ematen zaion Micaela de Portilla Vitoria Saria (4. edizioa).
- G-9 taldeko Genero Ikasketetako Ikerketaren I. Sarian lagundu dugu.
- Unibertsitate bikaintasunerako genero berdintasun unitateen sarean (RUIGEU) parte hartu dugu, azaroaren 25eko jardueren harira. Gainera, UPV/EHUk manifestuaren euskararako itzulpenarekin lagundu du eta webgunearen bidez hedatu du.

- UPV/EHUko LGTB ligarekin lankidetzan bi topaketa antolatu ditugu (bata Gipuzkoako Campusean eta bestea Bizkaikoan), Trans-aktibismoari buruz: "Sophie Labelle kanadiar komikigile eta aktibista transfeministarekin topaketa".
- Emakume ikerlarientzako II. Idazketa Astearen barruan komunitate osoari irekitako konferentzia bat antolatu dugu, "Cómo preparar un artículo para su publicación" (Nola prestatu artikulu bat argitaratzeko), baita kontziliazioari buruzko mahai-inguru bat ere; guztira 26 pertsonak parte hartu dute (% 92 emakumeak).

## **10.2. INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUA ETA BALIABIDE NATURALEN ERABILERA ARDURATSUA**

### **10.2.1. Irakasle-ikertzaileak eta AZPkoak hondakin arriskutsuen gestio arduratsuan prestatzera bideratutako ikastaroen eskaintza hobetzea eta finkatzea.**

- Honako ikastaro hau antolatu da: "UPV/EHUko hondakin arriskutsuen kudeaketa: prozedura, sailkapena eta minimizazioa", irakasle eta ikertzaileei eta AZPko langileei zuzenduta, baita Arabako Campuseko hondakin arriskutsuak sortzen dituzten ikastegietako ikertzaileei ere; guztira 47 pertsonak parte hartu dute (32 emakume eta 15 gizon).
- Irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta UPV/EHUko hiru campusetako hondakin biosanitarioak sortzen dituzten guneeetako ikertzaileei zuzendutako hiru ikastaro antolatu ditugu "Hondakin biosanitarioen kudeaketa arduratsuari" buruz. Bertan, 108 pertsonak parte hartu dute guztira (78 emakume eta 30 gizon). Hona campusen araberrako parte hartzea: Araba: 19 pertsona (14 emakume – 5 gizon); Bizkaia: 70 pertsona (51 emakume – 19 gizon); Gipuzkoa: 19 pertsona (13 emakume – 6 gizon).
- Koordinazio bilerak hondakin arriskutsuak sortzen dituzten guneeetako zuzendaritza taldeetako arduradunekin.

### **10.2.2. Laborategietan aritzen direnak sentsibilizatzea hondakin kimikoak eta biosanitarioak minimizatzeke.**

- Laguntza teknikoa hondakin arriskutsuak sortzen dituzten guneeetako langileentzat, sortzen dituzten hondakinak minimizatzearekin eta kudeatu beharreko edukiontzia behar bezala bereizi, biltegiratu eta etiketatzearekin loturiko zalantzak argitzeko.
- Honako irakaskuntza material hauek landu, argitaratu eta banatu ditugu, irakaskuntza laborategietan eta ikerketakoetan sortzen diren hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatzeko: UPV/EHUko hondakin arriskutsuak sailkatzea eta bereiztea; hondakin arriskutsuak behar bezala biltegiratzeko jardunbide egokiak; produktu kimikoen eta hondakin arriskutsuen biltegiratzea laborategietan; errektiboan eta hondakin arriskutsuen manipulazioa. Jardunbide egokiak; laborategietan hondakinak minimizatzeke irizpideak.
- "Laborategiko Hondakinak Minimizatzea" posterra argitaratu dugu. Posterra hiru hizkuntzatarata itzuli dugu (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta hondakin arriskutsuak sortzen eta/edo kudeatzen dituzten UPV/EHUko sail, laborategi eta ikerketa talde guztietako arduradunei bidali diegu.

### **10.2.3. Ikastegiekin eta campusekin batera ingurumenaren gestioa hobetzeko prozesuak mantentzea.**

- Gure ikastegi guztiek eutsi diote jasangarritasunarekiko konpromisoari.
- Arabako Campusa: Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolak Ekoscan ziurtagiria eskuratu du (Ekoscan Plus).



- Bizkaiko Campusa: Ekoskan ziurtagiriari eta kontsumoa optimizatzeko helburuei esker, jasangarritasunarekiko konpromisoei eutsi diegu. 2015-2016 ikasturtean, ikastegi hauek lortu dute ziurtagiria: Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (3. auditoretza), Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola (2. auditoretza) eta Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa (Ekoscan Plus). Gainera, diru laguntzak eman dizkiegu hala eskatu duten ikastegiei, ingurumena hobetzeko edo egiaztapen azterketa egiteko kudeaketa sistemari eusteko.
- Gipuzkoako Campusa: Campuseko ikastegietan Ekoskan araua egiaztatzen prozesuarekin jarraitu dugu. Ekoscan Plus ziurtagiria zutenez gain, 2015-2016 ikasturtean beste hauek lortu dute ziurtagiria: Carlos Santamaria Zentroa (2. auditoretza), Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola (3. auditoretza), Unibertsitate Eskola Politeknikoa (Ekoscan Plus), eta Kimika Fakultatea (1. auditoretza).
- Hozkailu Solidarioa jarri da martxan, Ostalaritza Eskolaren eta Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartearen bitartez, jakiak xahutzea saihesteko. Eskolan egunero sobran gelditzen den janaria ontzietan bildu eta etiketatu egiten da, eta hezkuntza komunitatearen esku jartzten da, kontsumitzeko prest.

### 10.3. GARAPENERAKO LANKIDETZA

#### 10.3.1. Garapenerako hezkuntzaren instituzionalizazioa finkatzea.

- Garapenerako Lankidetzako gradu amaierako praktika eta proiektuen programan 81 ikasleek (% 70,37 emakumeak) eta UPV/EHUko 16 ikastegik parte hartu dute. Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 15 herrialdeetara joan dira.
- 2015eko ekainean berrituriko UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Kontseiluak bere jardunari heldu dio.

#### 10.3.2. Garapenerako unibertsitate lankidetzako sustatzea unibertsitateko kideen artean.

- Garapenerako Unibertsitate Lankidetzako proiektuetarako diru laguntzen deialdia argitaratu dugu. Laguntzen ekarpena 30.000 eurokoa da eta horiei esker lau proiektu berri jarri ahal izan dira martxan honako herrialde hauetan: Nikaragua, Dominikar Errepublika, Brasil eta Argentina.
- Hori horrela, Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean aho batez hartu zuen erabakiak bide eman die 2015-2016 ikasturtean errefuxiatuei laguntzeko eginko ekimenei, 4 jardun ardatzetan banatuak: oinarrizko laguntza (giza talde hori gure bisitarietako hizkuntza ikastaroetan sartzeko); egoera akademikoa erregularizatzen laguntzea (unibertsitatean sartzeko bideei buruzko aholkularitza); sentsibilizazioa edo eztabaida sustatzea (gaiari buruzko 6 jardunaldi), eta laguntza ekonomikoa eta materiala (10.000 €-ko funts ekonomikoa, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Kontseiluak kudeatua).
- Ikasleei zuzenduriko **Invisible Express** film laburren lehiaketaren 3. edizioa egin da, Kultura, Communication y Desarrollo GGKEarekin lankidetzan. Edizio honetan landutako gaia "**Giza eskubideek ez dute mugarik**" izan da, eta UPV/EHUko 14 ikastegitako 111 pertsonaren parte hartzea izan du. Film labur irabazlea **Aforo Limitado** izan da: <https://www.youtube.com/watch?v=gqmhbgmDUPw>
- UPV/EHUrekin hitzarmena duten unibertsitateetako atzerriko lau ikasleren diru laguntzak kudeatu dira (2 emakume eta 2 gizon), Bilboko Udalak finantzaturiko programa bati esker. Diru-laguntzak ostatu gastuak eta elikadura gastuen zati bat estali ditu.



- 25 baimen kudeatzen ari gara Euskal Herrira iritsiko diren errefuxiatuek hizkuntzak ikasteko online sistema batez goza ahal izan dezaten. Europar Batasunaren errefuxiatuentzako OLS ekimenaren barnean.

#### **10.4. GIZARTE ETA KULTURA KONPROMISOA INGURUAREKIN**

##### **10.4.1. II. Inklusio Plana garatzea eta ebaluatzea.**

- 2014-2015 ikasturtean, programen adierazleen ebaluazioa egin genuen, eta hamaika konpromisoetatik zortzi bete ditugula ikusi dugu. 2013-2014 ikasturtearekin alderatuta, emaitzak pixka bat hobetu ditugula ikusi dugu; izan ere, ikasturte hartan 8 konpromiso bete genituen.

##### **10.4.2. Prestakuntza eta Sentsibilizazio Programako jarduerak gestionatzea. Zeinu hizkuntzako ikastaroak eskaintzea hiru campusetan ikasketa osagarrien bidez.**

- Hainbat ekintza egin dira 2012-2017ko II. Inklusio Planeko Prestakuntza eta Sentsibilizazio Programa garatzeko esleituriko Kontratu Programaren esparruan.
- Prestakuntza ekintzak:
  - Pertsona Gorrekiko Komunikazio Estrategiei buruzko hiru ikastaro egin dira ikasle gorrei eskolak ematen dizkieten irakasle eta ikertzaileentzat.
  - Ezgaitasuna eta Jardunbide Egokiei buruzko hiru ikastaro egin dira Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako campusetan AZPko langileentzat.
  - Irakasle eta ikertzaileei zuzendutako Prestakuntza Inklusiboko Planaren lanketa hasi da.
- Sentsibilizazio ekintzak:
  - Unibertsitateko ikasleei zuzendutako gorreriaren inguruko Jardunbide Egokien 2 jardunaldi antolatu dira.
  - Zeinu hizkuntzari buruzko 2 ikastaro antolatu dira Gipuzkoako Campusean.
  - UPV/EHU inklusiboari buruzko bideo bat landu eta hedatu da.
  - Unibertsitate Inklusiboari buruzko I. Kartel Lehiaketa antolatu da.
  - Inklusioari buruzko I. Lehiaketa deitu da Master Amaierako Lanerako.
  - Ezgaitasunari buruzko argazkien eta Unibertsitate Inklusiboari buruzko I. lehiaketako kartel sorta baten erakusketak egin dira.
  - Hainbat material egin dira –hiztegi daktilologikoak eta orri markagailuak, esaterako– prestakuntza ikastaroetan eta saioetan entregatzeko.
  - Kartel lehiaketako kartel irabazlea argitaratu da unibertsitateko ikastegi guztietan entregatzeko.
  - Ikus-entzunezko irakaskuntzako materialaren 62 transkripzio egin dira testura, eta 17 azpitolatze.

##### **10.4.3. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren zerbitzuen karta ebaluatzea.**

- 2014-2015 ikasturteari dagokion zerbitzuen kartaren berrikuspina egin da eta egoki bete dira ezarritako 8 konpromisoetatik 7.
- Gainera, kartako zenbait eduki aldatu dira (zenbait jarduera, konpromiso eta adierazle aldatu; erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideak eta zerbitzuarekin loturiko araudi espezifikoa eguneratu; kartako zenbait atalen idazketa hobetu), datozen bi ikasturteetarako karta berri bat onartzeko helburuz.

#### 10.4.4. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten UPV/EHUko Ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegiari zabalkundea ematea.

- UPV/EHUko ikastegietan hedatu da, dekanoen eta zuzendarien artean, sailtako zuzendarien artean, UPV/EHUko zerbitzuetan, liburutegian, campusetako gerenteordetzen eta ikasleen artean ere.

#### 10.4.5. Gizarte elkarrizketarako guneak bultzatzea.

- II. Boluntariora Azoka antolatu dugu, Ikasleen Kontseiluaren eta Boluntariora Bulegoen laguntzarekin: Bolunta (Bizkaia), Gizalde (Gipuzkoa) eta Sartu (Araba). Unibertsitateko hiru campusetan, 80tik gora gizarte erakundek parte hartu dute, eta gai horri buruzko hogeitailer, hitzaldi eta erakusketa inguru egin ditugu, Bizkaiko, Gipuzkoako zein Arabako ikastegietan.
- Hiru campusetan aldi berean egin diren bi ekintza monografiko antolatu dira: Boluntarioraren Azoka eta Elikadura Burujabetzaren Astea gizarte eragileekin lankidetzan.
- Unibertsitateko kideei eta gizarteari zuzendutako lau jardunaldi antolatu dira; horietako bi Garapen Jasangarriko Helburu berriak hainbat eragileren ikuspegitik aztertzeko xedez; nazioarteko izaerako beste bat Medikuntza Fakultatean, eta, azkenik, "Garapenerako Lankidetzaren Inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen (GRAL) Programari Buruzko I. Topaketa", programan parte hartzen duten eragile ezberdinak harremanetan jartzeko; horien artean, administrazio publikoak eta garapenerako lankidetzako proiektuak bultzatzen dituzten GGKEak.

#### 10.4.6. Lankidetzarako guneak sortzea gizartearen premiei aurre egiteko.

- Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa abian jartzea, berau honela ulertuta: Zuzenbidearen eta ikasketa kriminologikoen sistema pedagogikoaren ikaskuntza eta -aldi berean- eraldatze gunea, eta diskriminazioaren aurkako estrategia juridikoak identifikatzeko eta haiei buruzko gogoeta egiteko laborategia. Izan ere, estrategia horiek baliabide egokiak izan daitezke ikasleak gizarte bidezkoago bat lortzeko duten zeregin garrantzitsuaz ohartzeko.
- Euskal Fondoarekin lankidetzan, "Gaztenpatia" Lankidetzako GRAL eta praktika programa jarri da martxan; bertan UPV/EHUko 5 ikastegitako 15 ikasle pare hartu dute (5 emakume eta 9 gizon). Gainera, programa horren esparruan, hiru irakasle (bi gizon eta emakume bat) izan dira Salvadorren eta Nikaraguan tutoretza lanak optimizatzeko eta ikaskuntza komunitateekiko loturak estutzeko (Colectiva feminista de desarrollo local Suchitoto - El Salvador; Iniciativa civil por la democracia INCIDE Alta Vera Paz - Guatemala; Asociación para el fomento del Desarrollo local ecosostenible del Río San Juan -ASODELCO- San Carlos - Nikaragua; Instituto tecnológico Meanguera de Morazán - El Salvador).

#### 10.4.7. Erakundeekiko lankidetzaren sarea zabaltzea ezgaitasunak dituzten ikasleen premiei erantzuteko.

- Lankidetzaren hitzarmen bat sinatu genuen 2016ko apirilaren 19an Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioarekin (Euskalgorrak), pertsona gorrek dituzten premiekin loturiko sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak antolatzeko.
- Lankidetzaren hitzarmen bat sinatu genuen 2016ko otsailaren 20an Adecco Fundazioarekin, ezgaitasunak dituzten ikasleen enplegarritasuna bultzatzeko.
- SAPDU sarearen (unibertsitatearen ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zerbitzuen sarea) jardueretan parte hartzea. Sareak, guztira, EUEBren kide diren 59 unibertsitate publiko eta pribatu biltzen ditu.

## 10.5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

### 10.5.1. Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko protokoloak berrikustea eta eguneratzea.

- Prebentzio Sistema osatzen duten prozeduren berrikuspenari ekin zaio, eta berriaz xede horretarako lantalde bat eratu da.
- Gizarte Segurantzaren kudeaketa CRET@ sistemari egokitu zaio.

### 10.5.2. Arrisku psikosozialen azterketa oinarri hartuta prebentzio ekintzak planifikatzea.

- Arrisku psikosozialen ebaluazio prozesua amaitu ostean, eta horretarako berriaz osaturiko lantaldeen proposamenak aztertuta, UPV/EHUK, osasun eta segurtasun politika eraginkor bat bultzatzeko konpromisoarekin bat, hainbat prebentzio neurri ezarri ditu lehentasunezkotzat jotako honako dimentsio hauei dagokienez:

#### 1.- Presentzia bikoitza:

- Kontziliazioa zehar ildo gisa txeratzea UPV/EHUren politiketan (II. Berdintasun Plana).
- Zerbitzuen betekizunekin eta zereginen esleipenarekin loturiko akordioak aldatzea, hobekuntza deiei berriz helduko dieten poltsak kudeatzeko araudi berri bat onartzen den bitartean.
- Malgutasun handiagoa UPV/EHUko langileentzako baimenen eta lizentzien erabileran.
- Telelana ezartzea.
- Jardunaldi mota desberdinak ezartzea (mistoa eta intentsiboa).

#### 2.- Eskakizun psikologiko kuantitatiboak: Langileen antolakuntza hobetzea.

- Laneko bermeen hitzarmenari atxikitzea ikastegiak berrantolatzeko prozesuaren esparruan; horren baitan honakoak egin dira:
- erreferentziazko langileak eguneratu.
- eta ikastegi eta zerbitzu ezberdinetan egitura homogeenak ezarri pixkanaka.

#### 3.- Geroarekiko segurtasun eza: Lana egonkortzeko neurriak.

- Aurreko puntuan adierazitako erabakiaz gain, 2016ko ekainean izenpeturiko LEPari buruzko erabakiak, 2.2 puntuan aipaturikoak.

#### 4.- Eskakizun psikosozial emozionalak: Gestio emozionala hobetzea.

- Estresarekin jokatzeko teknikak, coaching ikastaroak, talde dinamika, adimen emozionala eta antzerakoak gehitzea AZPko langileen prestakuntza planean.
- Jazarpen protokoloa.

#### 5.- Lidergoaren kalitatea: Lidergoaren kalitatea hobetzeko neurriak.

- Lidergoaren, taldeen gestioaren, gestio emozionalaren eta gatazkak ebaztearen inguruko ikastaroak gehitzea prestakuntza planean, bereziki bideraturik zuzendaritza eginkizunetan diharduten karguetan ari direnei.

### 10.5.3. Arrisku psikosozialen arlorako prebentzio eta jarduera prozedura egitea.

- 2014ko ekainaren 9an, gehiengoz onartu zuten Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean lan arloko jazarpen salaketei irtenbidea bilatzeari buruzko erabakia, gerora, 2014ko uztailaren 10eko Gobernu Kontseiluan berretsi zutena.

- Erabaki horren xedapen gehigarriak adierazten du EHAAn argitaratu eta sei hilabeteko epean, arrisku psikosozialen prebentzio eta jardunbide prozedura bat egingo duela helburu horretarako izendatutako batzorde batek.
- 2016ko urtarrilaren 28an, Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideek prozeduraren diseinua gauzatzeko lantaldeko kideak izendatu zituzten, gero hura Batzorde horretan aurkezteko, eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko.

## **10.6. OSASUNAREN SUSTAPENA INSTITUZIONALIZATZEA**

### **10.6.1. Unibertsitate Osasungarrien Espainiako Sarean sartzeko prozesua koordinatzea.**

- Ekainaren 2ko Gobernu Kontseiluan onartu zen UPV/EHU Unibertsitate Osasungarrien Espainiako Sarean (REUS) sartzeko erabakia.

### **10.6.2. Unibertsitate Osasungarrirako Batzordea eratzea.**

- Unibertsitate osasungarriarekin loturiko ekintzak sustatzeko koordinazio taldea sortu da, unibertsitateko hiru taldeen parte hartzearekin.

### **10.6.3. UPV/EHU osasunaren sustapenak daukan egoerari buruzko diagnosis egitea.**

- Egungo egoerari buruzko txostena lantzen hasi da, koordinazio taldearen zuzendaritzapean.

## 11. PROGRAMA. UNIBERTSITATE ADEITSUA ETA HURBILA

### 11.1. UNIBERTSITATEAREN GESTIO ARINA, GARDENA ETA ADEITSUA

#### 11.1.1. e-administrazioa garatzea.

- 2016ko otsailaren 4ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, administrazio elektronikorekin loturiko kide anitzeko organoen egitura aldatu zen. E-administrazio batzordearen orde, uztailearen 8an eraturiko Administrazio Modernizatzeko Batzorde Exekutiboa dugu orain. Batzorde hori Administrazio Elektronikoko Plana berrikusten eta eguneratzen ari da, aintzat hartuta arlo horretan gauzatu diren legeria aldaketak.

#### 11.1.2. UPV/EHUren Dokumentuak Gestionatu eta Artxibatzeke politika garatzea.

- UPV/EHUren kudeaketa dokumentaleko eta artxibatzeke sistemaren erregelamenduaren zirriborroa egin da eta Dokumentuen Gestio, Gardentasun eta Artxiboaren Batzordeari aurkeztuko zaio eztabaidatu eta, ondoren, Administrazio Modernizatzeko Batzorde Exekutiboan izapidetu dadin.
- Erregelamendu horrekin batera, UPV/EHUko sailkapen koadro berriaren zirriborroa prestatu da, Unibertsitateetako Artxibozainen Batzarraren gomendioei jarraiki. Testu hori Dokumentuen Gestio, Gardentasun eta Artxiboaren Batzordeari aurkeztuko zaio, halaber.

#### 11.1.3. Leihatila bakarreko eredu bat ezartzea.

- Eusko Jaurlaritzaren "Zuzenean" ereduaz aztertzen ari gara leihatila bakarreko erreferentzia gisa.

#### 11.1.4. Zerbitzuen kartak egiten jarraitzea.

- Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko Zerbitzuen Karten Araudi berria onartu zuen otsailaren 4an, eta berehala jarri zen indarrean. Horri esker, hasiera eman zaio lehenengo deialdian onarturiko zerbitzuen karten berrikuspen prozedurari, bigarren deialdian landutakoak onartu dira, eta zerbitzuen karten hirugarren deialdia egin da. Hirugarren deialdian zortzi unitate administratibok parte hartu dute.

#### 11.1.5. UPV/EHUren prozedura katalogoa lantzea.

- Abenduan abian jarri zen metodologia, Idazkaritza Nagusiko pilotu baten bitartez. 2016ko lehenengo seihilekoan gauzaturiko pilotuari esker 14 prozedura jaso ziren. Haiek ebaluatu ostean, unibertsitate osora hedatzeko jarraitu beharreko estrategia adostuko da.

#### 11.1.6. Iragarki ohol elektronikoen sistema berria martxan jartzea.

- Zerbitzu elektroniko eta elkarreragingarritasun batzordea iragarki oholen proposamen bat lantzen ari da, UPV/EHUren helbide elektroniko korporatiboa, banaketa zerrendak eta Iragarki Ohola arautzen dituen 2014ko martxoaren 6ko araudian, etorkizunean ehtaula ordezkaturiko duenean, deskribaturiko tipologiari jarraiki.

## **11.2. UNIBERTSITATE EGITURAREN GARAPENA**

11.2.1. Ikastegien egitura berria kontuan hartuta, ikastegien oinarrizko arautegi berria egitea eta onartzea.

- 2015eko ekainaren 29an, egitura berriak eragindako ikastegiei Ikastegien Oinarrizko Arautegiaren proposamenaren zirriborroa aurkeztu genien, eta irailaren 21era arteko epea eman genien euren ekarpenak aurkezteko.
- Jasotako ekarpenetako batzuk txertatu ostean, Ikastegien Oinarrizko Arautegi berria 2015eko urriaren 1eko Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen, eta azaroaren 5ean onartu (2016eko urtarrilaren 4ko EHAAan argitaratuta).

11.2.2. Ikastegi berriekin konpromiso agiriak prestatzea.

- Konpromiso agiri eredu bat landu da. Eredu hori ikastegi bakoitzerako egokituko da eta ikastegi berrietako zuzendaritzekin eztabaidatuko da, ikastegi horietako hauteskunde prozesuak amaitu ostean.

11.2.3. Sailak berrantolatzeko estrategia lerroak zehaztea.

- Sailen egitura aldatzeko proposamen bat landu da, baita haien gobernantzarako irizpideak ezartzekoa ere; berau hurrengo errektoretza taldeari helaraziko zaio.

## **11.3. GARDENTASUNEZ JOKATZEA ETA KONTUAK EMATEA**

11.3.1. Iragarki Taula Elektronikoa Ofiziala martxan jartzea.

- Dokumentuen Gestio, Gardentasun eta Artxiboaren Batzordea iragarki taularentzako araudi espezifiko baten proposamena lantzen ari da UPV/EHU-n Bitarteko Elektronikoen Erabilera Arautzeko eta Egoitza Elektronikoa Sortzeko Arautegiko 10. artikuluekin bat etorrira.

11.3.2. Gardentasunari eta informazioa eskuratzeari buruzko legea garatzea.

- Compromiso y Transparencia fundazioaren gomendioei eta beste unibertsitate batzuetako jardunbide egokiei jarraiki, zirriborro bat egin da Gardentasun Atariaren egiturari, banner bakoitzaren edukari eta zerbitzuei eta informazio horren pertsona arduradunei buruz. Berrikusteke dago, eta euskarri izango duen tresna informatikoa zehazteke.

## **11.4. BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA**

11.4.1. 2012-2015 aldiko UPV/EHUko Komunikazio Planaren ebaluazio amaitzea.

- Amaitu da UPV/EHU 2012-2015 aldiko I. Komunikazio Planaren ebaluazioa. Ebaluazio hori ikerketa metodologia kualitatibo batean dago oinarrituta eta hari esker ezarri ahal izan da adierazitako planak ez duela izan gure ustez halako tresna batek izan beharko lukeen garrantzia, eta garapen horretan hiru funtsezko aldagaiak parte hartu ahal izan dutela: UPV/EHUren komunikazio zuzendaritza estrategiko baten falta, aldaketa sakona behar duen webgune bat, eta baliabide materialen eta, batez ere, giza baliabideen urritasuna.

- Bestalde, ebaluazioaren ondorioen artean nabarmentzekoa da, halaber, 2015eko amaieran UPV/EHUren barne eta kanpo komunikazioa 2011n baino askoz ere sendoagoa dela, eta hobetzen jarraitzeko oinarriak ezarri direla.

#### 11.4.2. 2016-2019 aldirako II. Komunikazio Plana osatzea eta ezartzea.

- UPV/EHUren Gobernu Kontseiluk, ekainaren 2ko saioan, UPV/EHUren 2016-2019 aldirako II. Komunikazio Plana onartu zuen (<http://www.ehu.es/documents/10136/3059204/Plan+Comunicacion+16-19.pdf>)

### 11.5. GASTUAREN KONTROL ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA

#### 11.5.1. UPV/EHUren kontabilitate analitikoko 2011ko datuak lortzea.

- 2011ko ekitaldiko kontabilitate analitikoaren emaitzak lortu dira. Abian jarri da 2014ko eta 2015eko ekitaldietako kontabilitate analitikoaren datuak lortzeko prozesua, eta horiek, berekin dakartzate Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak onarturiko kostu-ereduaren eguneratzeak.

#### 11.5.2. UPV/EHUko eraikinen hornidura eta funtzionamenduan kostuak murrizteko eta energia eraginkortasuna hobetzeko plana garatzea.

- Aurreko urteetako lan ildoarekin bat, energia eraginkortasuna hobetu eta argiztapen mailak egokitzeko asmoz, pixkanaka gune komunetako, geletako eta laborategietako luminariak ordezkatzeko ari gara, efizientzia handiagoko beste batzuk jarrita. Era berean, korridoreetako eta gune komunetako argiztapenaren sektorizazioarekin jarraitzen dugu.
- Bestalde, amaitu dira hiru campusetako eraikinen auditoretza energetikoak; hala ere, ez da izan bertan aurreikusitako hobekuntza guztiei heltzeko behar adina eskuragarritasun ekonomiko.
- Era berean, UPV/EHUko eraikinen energia ziurtagiria lortzeko lanak garatzen ari gara.
- Bizkaiko Campusean, Leioa-Erandio eremuko berogailu sareen azterketa amaitu da, eta hasiera eman zaio iragazkiak berrikusi eta garbitzeko prozesuari, azterketan eginiko gomendioei jarraiki.

### 11.6. FINANTZIAZIO EREDU JASANGARRIA

#### 11.6.1. 2015-2018 aldirako Unibertsitate Planaren jarraipena egitea.

- Bilerak izan ditugu aldizka Eusko Jaurlaritzarekin 2015-2018 aldirako Unibertsitate Planaren jarraipena egiteko, eta 2015ean eginiko Programa Kontratuaren jarduerak justifikatzeko memoria bat landu da.



## 12. PROGRAMA. CAMPUSETAKO BIZITZA

### 12.1. CAMPUS ANITZEKO EREDUA

#### 12.1.1. UPV/EHUko campus anitzeko eredia garatzen jarraitzea.

- Ostatuaren eta garraioaren gestioa Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzatik Campusetako Errektoreordetzetara aldatu da.
- Gipuzkoako Campusean, eta campuseko ikasleentzako arreta zerbitzu guztiak eraikin bakar batean biltzeko asmoz, Ignacio Maria Barriola Zentroko Master eta Doktorego Eskolara eraman da, eta PIUko teknikariak Joxe Mari Korta Zentrora. Ingelesez emandako irakasgaien eskaintza bateratua egin da, eta Campuseko komunikazio bulegoarekiko koordinazioa indartu da.

### 12.2. CAMPUSEN GARAPENA

#### 12.2.1. Campusak Garatzeko 2011-2014 aldirako Planaren bidez egindako eraikinak zabaltzea.

- Arabako Campusa:
  - Micaela Portilla Ikerkunea. Ikerketaren arloko eta Arabako Campuseko errektoreordeen ebazpenaren bidez (2015-12-11) argitara eman zen zentroan guneak behin-behinean esleitzeko deialdia. Uztailaren 28an argitaratu zen deialdiaren behin-behineko ebazpena.
  - Bestalde, bi ikerketa laborategi erkide, lokal osagarriak eta arkeologia instalazioak eraikitzeko eta instalatzeko 116/15 PN espedientearen bitartez, bi laborategi egokitu dira eraikinaren 3. solairuan, besteak beste, kabina akustikoak eta Faraday kabinak dituztenak. Era berean, sotoan hiru lokal egokitu dira arkeologia saileko ikerketa prozesuaosatzen duten faseetarako.
- Bizkaiko Campusa:
  - Ikerketaren arloko eta Bizkaiko Campuseko errektoreordeen ebazpenaren bitartez (2015-12-11) Martina Casiano eta María Goiri eraikinetan ikerketarako guneak esleitzeko bi deialdi argitaratu ziren. Uztailaren 28an argitaratu ziren deialdi bakoitzaren behin-behineko ebazpenak.
  - Bizkaiko Campuseko laborategiko altzarien eta beharrezko instalazioen horniduraren homologaziorako 28/12 PI espedientearen bitartez, 1A13 eta 1A14 gela lehorra laborategiak eta neurri magnetikoen laborategia egokitu dira, guztiak ere plataformakoak, etorkizunean egingo den Ikerketako Zerbitzu Nagusien lekualdaketa aintzat hartuta. Era berean, CBAren proteomikako eta genomikako laborategiak egokitu dira, helburu berarekin.
  - Obra txikia egiteko kontratuaren bitartez, mikroskopiako 2.02.H lokala egokitu da; horren ostean, mikroskopia lokal horretan jarri da.
- Gipuzkoako Campusa:
  - 2015-2016 ikasturtearen hasierarako, Elbira Zipitria Zentroa jarri zen martxan Gipuzkoako Campusean, eta bertan kokatu dira hainbat zentro mota, Esperientzia Gelak, USAC eta Gizarte Berrikuntzarako Zentroa.
  - Eraikin berria irekitzeak campuseko pabilioiak libre uztea eta bertan unibertsitateko kideentzako jangela bat eta Hezkuntzaren Museoa kokatzea ahalbidetu du.

#### 12.2.2. 2015-2018 Urte Anitzeko Plana martxan jartzea.

- Inbertsioen Urte Anitzeko Planaren helburu bakarra Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria da, Bizkaian. Ikasturte honetan harremanetan izan gara hainbat erakunderekin proiektu hori osatzea lortu ahal izateko, baina ez dugu lortu nahi genuen xedea.

#### 12.2.3. Finantziario iturriak lortzea campusak garatzeko.

- Bizkaiko Campusa:
  - Animaliategia handitzea: Hornitzeko eta abian jartzeko fasea hasi da. Udalaren jardura-lizentzia jaso dugu eta azken izapideak egiten ari gara lehenengoz okupatzeko lizentzia eskuratu eta eraikinaren ondorengo erregistrorako.
  - Maria Goiri Animalia Bioteknologia Zentroa: 2015-2016 ikasturtean zehar eraikinaren hornikuntza fasea gauzatu da. Leioako Udalaren jardura lizentzia jaso dugu eta azken izapideak egiten ari gara lehenengoz okupatzeko lizentzia lortzeko eta eraikinaren ondorengo erregistrorako.
  - Martina Casiano Plataforma Zientifiko-Teknologikoa: 2015-2016 ikasturtean zehar eraikinaren hornikuntza fasea gauzatu da. Leioako Udalaren jardura lizentzia jaso dugu eta azken izapideak egiten ari gara lehenengoz okupatzeko lizentzia lortzeko eta eraikinaren ondorengo erregistrorako.
  - Biofisika Institutua (UPV/EHU-CSIC): eraikin zaharreko langileen lekualdaketara egin da eta erabat operatibo dago.
  - Amaitu dira ibai artifizialen laborategia edukiko duen lokala egokitzeko lanak.

#### 12.2.4. Enpresa mintegien funtzionamendurako laguntza ematea.

- Arabako Campusa:
  - Lascaray Ikergunean kokaturiko INIZIA enpresaren mintegian oinarri teknologikoko enpresa ekimenak babesten jarraitu dugu. Gaur egun, lau enpresa ari dira ezartzen.
  - Arabako Hazitegien Sareari loturiko ekintzetan parte hartu dugu; esaterako, Araba Ekinean eta "Zure ideiak balio du" lehiaketa.
  - BIC Arabarekin lankidetzan, kultura ekintzailea sustatzeko hainbat jardura egin dira; besteak beste, mintegiak eta unibertsitateko kideei zuzenduriko jardunaldiak.
  - Topaketak egin dira Arabako Campuseko ikerketa taldeetako ikerlari nagusiekin, haietatik sor daitezkeen balizko enpresa proiektuak antzeman eta balioztatzeko.
- Bizkaiko Campusa:
  - Azpiegituren atalean ekintzailtzeko gela berri bat egokitu da Zubiria Etxean (Sarriko); helburua bertako jardura 2016-2017 ikasturtean hastea da. Gelak eskaeraren arabera egokitu daitezkeen 2-3 gune konfiguragarri ditu, eta han Ekonomia eta Enpresa Fakultateko enpresa proiektuak biltzea da xedea; bereziki fakultate horretatik sortutako junior enpresak.
  - Bilbao Bizkaia MassChallenge lehiaketan parte hartu dugu, eta bertan, ZITEK programako 3 enpresa hautatu zituzten prestakuntza fasea Bostonen egiteko. Horretaz gain, kultura ekintzailea sustatzeko Etorkizulan jardura egin da. Bestalde, kultura ekintzailea sustatzeko Ekinduz 2016 lehiaketa antolatu da eta 400 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute. Azkenik, enpresekiko topaketak antolatzen jarraitu dugu, eta horiek baliagarriak dira proposamenen trukeak egiteko eta enpresa aliantzak eraikitzeko. Ikasturte honetan, 3 topaketa egin ditugu, ekintzailtzarako laguntzak emateko eta jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak bermatzeko.
  - Guztira 5 enpresa berri sortu dira eta dagoeneko ZITEKen inkubagailuetan daude.

- Gipuzkoako Campusa: Entreprenari Programak jarduerak lantzen jarraitu du, hiru jardun ildo estrategikoetan:
  - Kultura Ekintzailea: foroak, tailerrak eta mintegiak eginda, lankidetzak eskainita masterretan eta sarietan (Laborde eta Think Big) -230etik gora pertsonak parte hartu dute-, bai eta enpresa berritzaileak sortu eta kudeatu nahi dituzten ekintzaileentzako prestakuntza espezifikoa emanda ere.
  - Enpresa proiektuak hautematea eta balioestea, enpresetara ikustaldi pertsonalizatuak eginda eta enpresekiko lankidetzak sustatuta. Bic Gipuzkoarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, diagnostiko teknologikoak martxan jartzeko proposamen bat diseinatu dugu. 35 negozio ideia identifikatu ostean, 6 kontratu berri formalizatu dira EKINTZAILE/txEKINTEK programaren baitan, eta 2 gehiago 2014ko Gradu/Master/Doktorego Tesi lehiaketetatik eratorritakoak. Era berean, 4 enpresa berri sortu dira, 8 proiektu daude negozio plana zehazteko fasean eta 4 *startup* abiarazte fasean.
  - Enpresa-proiektuak gestionatu eta garatzea. Aurre-inkubazioko Entreprenari Gunean 8 proiektu zientifiko-teknologiko gauzatzeko aholkularitza ematen ari gara, eta 6 enpresa berri sortu dira.

#### 12.2.5. Eraikinak indarreko araudira egokitzea (prebentzioa, irisgarritasuna, jarduera lizentziak).

- UPV/EHUren hainbat eraikinetako estalkien babes bitartekoak hobetu dira, hori guztia arriskuak prebenitzeko eta laneko segurtasunerako araudira egokitzeko, 78/15 PN espedientearekin bat.
- Arabako Campusa: Campuseko Irisgarritasun Planaren bidez, Elurreta eraikineko sarbide ate nagusia, halleko atea eta Koldo Mitxelena liburutegiko atondoko sarrera automatizatu dira; Farmazia Fakultatean antzeko lan bat egin da hegoaldeko sarrerako ateetan.

Suteak detektatzeko eta alarma pizteko sistemen hobekuntzari dagokionez, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko bi lokal egokitu dira eta hobekuntzak egin dira Pabilioiko eta Elurretako detekzio sistemetan.

Campuseko ikastegietako igogailuak hobetu dira eta amiantoa izan zezaketen arbelak kendu eta berriak jarri dira haien ordean.

- Bizkaiko Campusa: Medikuntzako Eraldatzeko Gunea eta Zientzia eta Teknologia Fakultateko sute detektagailuak ordezkatu dira, Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean kokaturiko Odontologia Klinikaren irisgarritasun baldintzak hobetu dira, zientzia parkearen eremua hiritartu da, eta abar.

Bilboko eremuan honakoak egin dira: eskailera-igogailu bat instalatu da Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, irisgarritasun arautegira egokitzeko asmoz.

- Gipuzkoako Campusa: Araudiari hobeto egokitzeko egin diren jardunen artean, zein campuseko hainbat eraikinen irisgarritasunaren hobekuntzari dagokionez, nabarmentzekoak dira hauek:

Besteak beste, hainbat ikastegitako KBE gabeziak konpontzeari ekin zaio, eta suteetarako ponpaketa multzo bat instalatu da Elbira Zipitria zentroan, gela hotzen arteko komunikazio ateak ordeztu dira, bi detektagailu lineal hornitu eta instalatu dira Elbira Zipitria zentroan, eta abar.

#### 12.2.6. Campusetako irakaskuntza, ikerketa eta gestioa Europako Unibertsitate Eremura egokitzen laguntzea.

- Hiru campusetan (Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia), hainbat deialdiren bitartez, ekipamendu informatikoa hobetzeari ekin diogu (softwarea eta hardwarea), baita

campusetako ikastegietako ikasgeletako, mintegietako eta laborategietako ikus-entzunezko sistema egokitzeari ere.

- Arabako Campusean jarraipena eta laguntza eman zaie campus horretan bertan garaturiko Hezkuntza Berrikuntzarako 5 proiektuei eta 5 proiektu berri jarri dira abian 2015-17 biurtekorako.
- Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak diruz lagundu ditu ikasleek egiteko hainbat ikastaro eta jardunaldi, ikasleen prestakuntza osagarri gisa.

#### 12.2.7. Tokiko eta lurraldeko erakundeekin harremanetan jartzea lankidetzako proiektuak sortzeko.

- Arabako Campusean hitzarmen bana berritu da Arabako Foru Aldundiarekin eta Vital Fundazioarekin, Giza Zientzien titulua irakatsi ahal izateko. Era berean, AFaren laguntzari esker, Gazte Informaziorako Gunea dugu campusean. Gasteizko Udalak, bestalde, unibertsitateko kideen artean ariketa fisikoa bultzatzeko ekimenean parte hartu du, haien eskura jarriz hainbat kirol gune eta instalazio. Era berean, Cortada film laburren jaialdia eta ekintzailtza bultzatzeko programa finantzatzen lagundu du. Bestalde, hitzarmen bat sinatu dugu CEIArekin, ekintzailtza sustatzeko eta oinarri teknologikoko enpresen sorkuntza bultzatzeko.

Aurrekoetz gain, Campuseko Batzarrak edo bere Batzorde Iraunkorrek campuseko ikastegiekin eta ikerketa taldeekin sustaturiko hainbat hitzarmen onartu dituzte; kirolaren arloan, lankidetzako hitzarmenak sinatu dira hiriko hogeit hamar bat gimnasioarekin, unibertsitateko kideentzat abantaila sorta bat lortzeko helburuz.

- Bizkaiko Campusean, Campuseko Batzarraren Batzorde Iraunkorren bitartez, 36 hitzarmen sinatu ditugu hainbat erakundeekin, zenbait proiektutan lankidetzan jarduteko; besteak beste, "Zientzia Kulturako Katedra, Cátedra de Cultura Científica" mantentzeko. Eusko Legebiltzarrarekin hitzarmen bat sinatu genuen prozesu parte hartzaile bat ezartzeko metodologia bat diseinatzeko, euskal irrati-telebista publikoaren modeloa zehaztu eta/edo bideratzeari begira.

Beste hainbat hitzarmen ere sinatu ditugu, UPV/EHUko ikasleen prestakuntza zuzenean indartzeko, praktikak eta master amaierako lanak eginda, edo ikerketa lanak gauzatu. Hitzarmen horiek, besteak beste, honakoekin sinatu ditugu: Bordeleko Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitatea, Zenbat Gara Elkarte, Lleidako Unibertsitatea, Creativitic Innova, Cochrane Iberoamericano zentroa, eta abar.

Gratu, master edo berezko tituluen titulazioei dagokienez, akordioak ezarri dira Limogeseko Unibertsitatearekin, Cincinatikoarekin, Sociedad Española de Periodoncia y Osteointegración delakoarekin, Bordeleko Unibertsitatearekin eta beste batzuekin

- Gipuzkoako Campusean 20 hitzarmen onartu dira Campuseko Batzarraren bitartez; besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin, Bilboko eta Azkoitiko udalekin, eta Donostia 2016 Fundazioarekin.

Titulazio bikoitzei buruzko hitzarmenak sinatu dira UPPAren (IUT de Bayonne Pays-Basque) Informatikan, Ingeniaritza Zibilean eta Arkitektura Teknikoan; Alemaniako University of Applied Sciences Mittweida (HSMW) delakoarekin Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoko eta Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako titulazio bikoitzerako.

## **12.3. UNIBERTSITATE OSTATUA**

### **12.3.1. Alokairuko unibertsitate ostatuari dagokion eskaintza suspertzea.**

- UPV/EHUK alokairuko ostatu eskaintzaren datu-base bat sortu du, eta hiru campusetako ikasleek OSTATU zerbitzuaren bidez eskura dezakete.

### **12.3.2. Etxebizitza solidarioen eskaintza suspertzea.**

- Arabako Campusaren kasuan, eta AFArekin lankidetzan, ikasleek pertsona adindunen etxeetan ostatu hartzeko programa bultzatu da.
- Bizkaiko Campusean, 45 plazari eutsi diegu Gazte Solidarioak programan; hots, Bilboko Udal Etxebizitzekin lankidetzan egindako programan.

## **12.4. JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA**

### **12.4.1. Garraio jasangarria bultzatzea.**

- "Ibilgailua partekatu" programaren jarraipena.
- Arabako Campusean aktiboki lan egin da Gasteizko Udalarekin Mugikortasunaren Astean zehar antolaturiko jarduerak sustatzeko eta hedatzeko, eta Ingurugiro Gaietako Ikastegiarekin, bizikleta sustatzeko astean.
- Bizkaiko Campusean, harremanak izan ditugu garraio jasangarriko enprekin, aktiboki parte hartu dugu Europako Mugikortasun Astean, eta erabiltzaile askoko ibilgailuen aparkamendu programa espezifikoa eutsi diogu. Gainera, Aparka proiektuarekin jarraitu dugu, bizikletentzako aparkaleku seguru eta konektatua eskaintzen duena. Eta Bilboko hainbat ikastegitan bizikleta erabiltzea sustatzeko kanpaina berezi bat egin dugu, bigarren urtez jarraian.
- Gipuzkoako Campusean, bizikletaren erabilerarekin lotutako jarduerak egiteko Kalapie Hiriko txirrindularien Elkartearekin dugun hitzarmenari eutsi diogu. Donostiako Udalarekin lankidetzan aritu gara SWICH programa gestionatzen eta 2015eko Mugikortasunaren Astean antolaturiko jarduerak hedatzen. Campuseko errektoreordetzak, gainera, argazki rally bat antolatu du bizikletaren erabilera gaiaren harira.

### **12.4.2. Energia aurrezteko bidean aurrerapausoak ematea (eko-gestioa, ingurumen gestioa).**

- Dagokion deialdi publikoaren bitartez, eta 2015eko azaroaren 10eko gerentearen erabakiari jarraiki, unibertsitate zerbitzurako egokia ez den informatikako eta ikus-entzunezko materiala doan besterendu da.
- Arabako Campusa: Luminaria zaharrak kendu eta eraginkortasun handiagokoak jartzeko lanekin jarraitu dugu hainbat ikastegitako ikasgela, laborategi eta gune komunetan. Era berean, campuseko ikastegietan Ekoscan ziurtagiria lortzea bultzatzeko prozesuarekin jarraitu da.
- Bizkaiko Campusa: Ekoscan ziurtagiriari eta kontsumoa optimizatzeko helburuei esker, jasangarritasunarekiko konpromisoei eutsi diegu. Gainera, diru laguntzak eman dizkiegu hala eskatu duten ikastegiei, ingurumena hobetzeko edo egiaztapen azterketa egiteko kudeaketa sistemari eusteko. Ekainean egin zen campuseko ikastegietan eta eraikinetan ingurumen hobekuntzak egiteko laguntzen deialdia.

Affordable and Adaptable Buildings through Energy Efficient Retrofitting proiektu europarrean parte hartzen jarraitzen dugu. Proiektu horren esparruan oinarritzko proiektu bat idatzi da Errektorego eraikinean hobekuntzak egiteko.

- Gipuzkoako Campusa: Campuseko ikastegietan Ekoskan araua egiaztatzeko prozesuarekin jarraitu dugu. Carlos Santamaria Zentroak –campusean okupazio handiena duen eraikina– EKOSCAN ziurtagiria berritu du. Bestalde, energia auditoretzak amaitu dira campuseko fakultate eta eskola guztietan.

## 12.5. IKASLEENTZAKO TOPAGUNEAK

### 12.5.1. Campusetako ikasletxeen proiektua eta jarduerak garatzen laguntzea.

- Arabako Campusean lokal bat esleitu zaio Ikasleen Kontseiluari eta ikasleen elkarteek eta proiektuek campusean duten presentzia indartzen duten ekimenak lagundu dira.
- Bizkaiko Campusean: *Ikasletxeak* proiektuari emandako laguntzari eutsi zaio eta ikasle elkarte berrien jardueraren garapena babestu da.
- Gipuzkoako Campusean hainbat gune gaitu dira irakasleek erabil ditzaten –unibertsitate jangela bat barne–, Campuseko Pabilioietan.

### 12.5.2. Campusetako azpiegiturak hobetzea.

- Arabako Campusean, prestaketa akustikoa eta berogailu eta girotze instalazioak hobetzeko xedez, lanak egin dira hainbat ikastegitako ikasgeletan eta laborategietan (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, IUE, Farmazia...), luminariak ordezkatu dira eta ingurumena gehiago errespetatzen duten batzuk jarri dira, eta gune bat gaitu da ikasleen lankidetzako lana sustatzeko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean.
- Bizkaiko Campusean, Leioa-Erandio eremuan, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen kanpoaldea oinezkoentzako egokitu da, ikastegiko ikasleentzat eremu seguru bat izateko.

Master eta Doktoreko Eskola handitu da Biblioteka Nagusian.

Bilboko eremuan, zinkezko babesak berritu dira Elkanon kokaturiko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko estalkian eta hobekuntzak egin dira Basurtoko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Irakasgunean, iragazgaizteari, sarbideei, instalazio elektrikoari eta Autobabeserako Planaren diseinuari dagokienez.

- Gipuzkoako Campusean, besteak beste, hainbat gune egokitu dira Ignacio Maria Barriola Zentroan eta haietan kokatu da Master eta Doktorego Eskola. Campuseko Pabilioiak egokitu dira bertan Hezkuntzaren Museoa eta ikasleei zuzendutako guneak kokatzeko. Eibarren kokaturiko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren estalkiak konpondu dira.